

...eta!
Kittoa!

2016-X-28

990 zkia.



Maitasunari
Suta gar
pasioa



Eskola taldeetan / Jubilatuetan / Eskian
espezializatutako agentzia

**25 URTETIK GORA
TALDEAK OSATZEN**

Arragueta, 7 Eibar
T. 943 12 81 50



INAUGURAZIO JAIA
ZAPATUA, URRIAK 29, 19:00-21:00

ZUEN ZAIN GAITUZUE!



Policlínica Gipuzkoa

Grupo  quirónsalud

Kirurgia plastikoa eta estetikoaren KONTSULTA BERRIA Eibarko Policlínica Gipuzkoa zentroan

Eibarko Policlínica Gipuzkoak beste espezialitate bat gehitu dio bere koadro medikoari. Israel Villena eta Oscar Orozco kirurgia estetiko, plastiko eta konpontzailean espezialistak dira eta kontsulta pasatzen dute Ibarkurutze kaleko zentroan.

Israel Villena eta Oscar Orozco kirurgiariek aukera ematen dizute, orain baita Eibartik ere, hainbestetan buruan izan duzun hori betetzeko, ospitale-ingurunean egoteak ematen duen konfiantza eta segurtasunarekin, aholkularitza pertsonalizatua eta puntako teknologiaz lagunduta, eta finantzaketa-erraztasunekin batera.

Beti nahi izan duzun neurria zurea da orain

Bular-handitzea da, oraindik ere, gehien eskatzen den ebakuntza, baina mastopexia, hau da, eroritako titiak altxatu eta itxura hobetzeko ebakuntza ere gero eta gehiago eskatzen da. Badira bularren tamaina txikitze-ko kontsultara doazen kasuak ere. "Bularretako kirurgiaren ondoren bizitza ia normala egin ahal izango duzu 24-48 ordutan. Ondoz gehienak ondo kontrolatzen dira agindutako medikazioarekin, nahiz eta bularrek min eman dezaketzen pare bat astetan.



Villena eta Orozco Policlínica Gipuzkoako kirurgilari plastikoak.

Bendak edo aposituak egun gutxira kenduko dira, eta bularretako berezi batek ordezkatuko ditu", adierazi dute Israel Villena eta Oscar Orozco kirurgilariek.

Berreskuratu zure figura

Abdominoplastiarekin sabelaldeko koipe eta azal soberakina ezabatzen da eta ariketak eta dietak hobetu ezin ditzaizketen gihar-biguntasuna konpontzen da. Kirurgia mota hau ohikoagoa izaten da kiloak hartu eta ondoren galdu dituzten pazienteetan, hainbat haurdunaldi izan dituzten emakumezkoetan edo azaleko elastikotasuna galdu duten adinean sartutako pazienteetan. Kirurgia honen bidez, sabelalde lauagoa eta sendoagoa eta gerri estuagoa lortzen da, eta, ebakuntza berean, gorputz-inguruaren kirurgiarekin eta bular-handitzearekin konbina daiteke.

Zure hantzez harro

Lipoeskulturaren bitartez gorputzeko hainbat ataletako gantza xurga daiteke: aldakak, izterrak, belak, orkatilak, besoak, sabelaldea, aurpegia, etb. Normalean anestesia orokorarekin edo epidurala-

rekin egiten da. Kirurgiaren ondoren gerrikoa, mediak edo benda elastikoa jarriko da tratatutako zonaldean hantura eta odolustea kontrolatzeko eta azalari inguru berrira egokitzen laguntzeko. Hilabetez erabili behar izaten da gutxi gorabehera. Sor daitezkeen molestiak ateratako koipearen bolumenaren arabera izaten dira, hau da, zenbat eta koipe gehiago kendu orduan eta giharretako min sentazio gehiago izango dugu.

Lehenengo kontsulta

Bular-ebakuntzaren kasuan, lehenengo kontsultan, zirujau plastikoak, bularren tamaina eta forma, azalaren sendotasuna eta zure osasun egoera orokorra ebaluatuko ditu; abdominoplastia eta lipoeskulturaren kasuan, koipe-pilaketaren hedapena zehaztu, azalaren tonua ebaluatu eta zure osasun egoera orokorra aztertuko du. Gainera, aukeran dituzun kirurgia-teknika ezberdinak argituko dizkizu eta zure kasura hobeto egokitu daitezkeen aukera edo prozeduren inguruan aholku emango dizu. Halaber, ebakuntzarako prestatzeko jarraibideak ere emango dizkizu: jatekoak eta likidoak, tabakoa edo botikak, bitaminak eta burdin-gehigarriak hartu edo baztertu behar dituzun.

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Galder Izagirre

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxienezko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzeza hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu

iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa



ORDU ALDAKETA

ASTEBURUKO zapatutik domekarako (urriak 30) goizaldeko 03.00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02.00etara. Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburu horretako domekak. Neguko ordutegi honek martxoaren 26ra arte iraungo du; egun horretan udakoa jarriko da berriro indarrean.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAUPARDIA.- Mozkorra. "Aspaldixan eran barik eguan, eta arda u jania egundoko laupardia hartu dau".

LAZTAN.- Musua. "Haren laztan bategaittik, urtebeteko bizixa emongo eban pozik". Maitea, kuttuna. "Ah, nere seme laztana!".

astean esanak

"Gure pilotariek oihartzun handia izan zuten sasoi batean, Iparraldean batez ere. Atano III.ari kapela hegalduna zeraman bat berarengana gerturatu eta zigarro puru handi bat oparitu zion. Harek ez zuen ezagutu; besteak bai ezagutzen zuela pilotaria. Gero jakingo zuten Winston Churchill zela kapeladuna. Miguel Gallastegiri ere gertatutakoa da hau: bere emaztearekin zine jaialdi batera joan eta, alfonbra gorritik zelan zoriontzen zuten harrituta, horren zergatia galdetu zuenean, Johnny Weissmuller igerilariarekin, orduko Tarzanekin nahastu zutela jakin zuten"

(ANDER LETAMENDIA, SENDAGILEA)

"Elena Ferrante izenordearen atzean ezkututzen zen idazlearen identitatea argira ateratzea kazetaritza ikerketa zorrotz moduan saldu dute, baina egile horrek erabiltzen zuen ezizenari mozorroa kentzeko zitalkeria ariketa besterik ez da erabili, harek bere eleberriak argitaratzen zuen editorialeko ordenagailuak lotsa barik hackeatzeko. Kazetaritzaren azken helburua ezkutan dagoen eta jendeari kalte egiten dion edozeri argi ematea bada ere, hori urruti dago jende hori kuriositate morbosoa batekin zirikatzetik. Batez ere, komunitateari inolako mesederik egin gabe, baten intimitatean sartu eta doako mina eragiten denean"

(JAVIER MARIAS, IDAZLEA)

"Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak behin-behineko langileak kaleratzeagatik ordaindu beharreko fijo (behin-betirako egun deus ez dela badakigu) zeuden langileen kaleratzearekin berdindu izanak sortu dituen erreakzioek umetako baloi jabearen figura ekarri didate gogora. Askok hala dabil munduan, baloia besapean hartuta, mehatxuka: produktua garestitzea beste irtenbiderik ez dutela izango enpresariak; garestitu ezin duenak langileari soldata jaitsi beharko omen dio derrigor; eta jaitsi ezin dienak ezin izango omen du langile gehiago kontratatu. Hau da, baloia enpresariena dela, ez langileena"

(ANDONI EGAÑA, BERTSOLARIA)



IRATXE GIMENEZ

Ustelkeria eta marradun soinekoa

Oporretara joaten garenean egunerokotasunera lotzen gaituzten hari ikusezinak apurtzen saiatzen gara askotan. Baina, zoritxarrez, badago gai bat txokorik lasaienean ere ezagutzen dena: ustelkeria.

Vietnam komunismo bipolarra sufritzen duen nazioa da. Kaleetako kartel handiek eta bost puntadun izarrek ezin dute estali bertako gizarteak dituen desorekak eta orokortutako korrupzioa. Saigoneko parke batean esertzen bazara, nerabe talde batek inguratzeko arrisku larrian zaude. Euren ingelesa maila neurtu nahi dute eta ez diote so egingo zure begirada errukiarrari edo aurpegi gorrituari. Ingelesa praktikatu nahi dute eta listo. Hasieran amarrutzat hartu nuen elkarriketa interesgarria suertatu zen. Thung 22 urteko ingeniaria zela esan zidan. Japoniera ikasten ari zen Japonen lan egiteko asmoa zuelako. Ondoren bueltatu egingo zen... ("horrelako gazteekin, nazio honek itxaropena du", pentsatu nuen) ...eta orduan, osatutako kurrikulum-arekin funtzionario sartzeko aukera asko izango zituen. Hori lortzean, ustelkeriaren gurpilaz gozatuko zuen. Horrela esan zidan, gordin. Hori plangintza!

Andaluziako taberna batean, gizon batek bertako ERE auzia ez zuela ondo ikusten esan zigun, "jendeari laguntzeko bideratu zelako dirua, Robin Hood-ek egiten zuen bezala". Ustelkeria ulertzeko modu horiek orain dela hilabete batzuk sarean zabalduta ziren, bakoitzak kolore ezberdinekin ikusten genuena. Gure onurarentzat baldin bada, urre kolorekoa ikusten al dugu korrupzioa? Andaluziako gizon horrek kolore zuri neutroan ikuskatzen al zuen? Estatuko boto emailen gehiengoak badirudi urdin ilun kolorea hartzen diola bakarrik, eta ez beltza. Azken hauteskundeak emaitzak hori diote behintzat.

Etxeko Ura kanpaiña hasi da

Aurreko astian aurkeztu eben Kutxa Ekoguneak eta Udalak hasi daben "Etxeko ura" kanpaiña. Plastikuen konsumua jaistia billatzen daben ekimen horren harira 200 pitxar baiño gehixago banatuko dittue herriko taberna eta jatetxietan, ostalarixak itturriko ura erabiltzera animatzeko asmuarekin. Eibarren dagoeneko 12 establezimendutan (Eskarne, Orbe, Aguiñaspi, Bar Nuevo, Kontent, Batzokia, Ixua, Portalea, Albert, Kultu, Azitain erretegia eta Paulaner Bierhaus) bezerueri "Etxeko ura" eskintzeko konpromisua hartu dabe. Edozelan be, datozen hillebetiotan be kanpaiñarekin bat egitteko aukeria egongo da (www.ekogunea.eus webgunian edo 943 55 20 20 telefonora deittuta). Diñuenez, pitxarrerri esker hillian 62.000 plastikozko botilla gitxiago erabiltzen dira.



siñadura baiño gehixago aurkeztu dittu Eibarko Ahal Duguk udalian, zaborraren tasak azken bi urtietan izandako igoeriaren kontra: 2015. urtian %13 igo zan eta %13 gehixago igo eben 2016ko bigarren hiruhillebetekuan. Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak sortutako 821.429 euroko defizitarekin justifikau dittue igoeriak.

Eskaparatismo ikastarua dendarixendako

Gaboneri begira erakusleihu erakargarririk preparatzen ikasteko saiua antolatu dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak, azaruaren 7rako, Euskeraz Primeran kanpaiña dendarixendako. Izena emoteko 943200918 telefonora deittu edo elkarte@etakitto.eus helbidera deittu leike (azaruaren 4ra arte). Idoia Lavadok emongo daben ikastarua ...eta kitto!-n izango da, 14:45etik 16:15era.



Kafiak zelan preparau ikasten

Euskeraz Primeran! kanpaiñaren barruan, tabernarixeri kafe-ikastaruan parte hartzeko aukeria emon zetsen ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Izena emon ebenak Kontent tabernan alkartu ziran martitzenian, Iñaki Querejazu eta Josu Abaden azalpenak adi-adi entzuteko prest. Kafe diferentiak (irlandesa, kaputxina, kafe-latte...) preparatzen ikastiarekin batera, kontuan izan biharreko beste kontu batzueri be heldu zetsen.



Tomate artian gozaten

Eta, gozaten ez eze ikasten be jardun eben eguaztenian ...eta kitto!k antolatutako tomate-dastaketara gerturatu ziranak eta, Ortutik Ahora alkarteko Sergio Gonzalezen eskutik, bertoko tomate-aldaeriak ezagutzeko zein probatzeko aukeria euki eben.

“Kintuen” ospakizun bikoitza

Aurreko zapatuan baten faltan "kintuen" bazkari bi egin ziran gurian. Alkartzen lehelenguak 1958xan jaixotakuak izan ziran eta, taldiaren argazki ofiziala eginda, batutakuak Azittain erretegitxan bazkaldu eben alkarrekin. Eta aurten 60 urte betetzen dittuenak, 1956xan jaixotakuak, Eibarko Kasinuan egin eben bazkarixa eta ondoren nahi izan ebenak gorputza pixka bat astintzeko aukeria be euki eban, bazkalosterako antolatu eben dantzaldixan.



Goiko argazkixan, 1956kuen taldia. Behian, 1958kua. Maialen Belaustegi

autuan

Urteberriko zozketia

Euskal Herri osuan dagoz salgai Gure Esku Dago-ren Urteberriko Saria zozketarako txartelak, 5 eurotan, baita Eibarren be. 30.000 euroko sari nagusixa eta 1.000 euroko beste 10 sari banatzeko zozketia urtarrillaren 16xan egingo dabe, notarixio baten aurrian, saldutako boletuen artian. Sarixa banatzeko ekitaldixa, barriz, otsaillaren 18xan egingo da, Beasaingo Igartza jauregixan.



Enpanada lehiaketia

Datorren astian, azaruaren 5ian eta 6xan ospatuko dabe Galiziako Etxekuak VII. Enpanada eta Magosto Jaixa, Urkizuko parkian. Lehiaketarako enpanadak okelarekin egindakuak izan biharko dira eta parte hartu nahi dabenak zapaturako (13:00erako) aurkeztu biharko detse epai-mahaikueri.

Gestoria Alonso

618 25 93 44
943 20 20 17

San Agustin, 5 - behea
mcalonsoeibar@gestores.net



IÑAKI BAGLIETTO ARRESE

II. urteurrena
(2014-X-24)

Zure
kuadrilakook
gogoan
zaitugu



Odol-emotailiak euren eguna ospatu eben

Aurreko zapatuan ospatu eben Debabarrena eta Debagoienako odol-emotailiak euren jaixa eta omenaldi nagusiña Fernando Bolinagak jaso eban, 100 donaziñora ailegau dala eta. Errekonozimendua egin zetsen be 75 donaziño egin dittuan Roberto Gorostegiri eta odol-emotaille haundixen titulua jaso eben Asun Aranberrik, Jesus Goioanak eta M^a Jesus Zabalak, honezkeru 60 donaziño egin dittuelako. 50 donaziño egittiagaittik insigniak jaso zittuen Luis Cepedasek, Juan Luis Larrinagak, Roberto Muñozek, Bittor Rodriguezek, Iñigo Santosek eta Jesus Ignacio Unzetak. Horrekin batera beste batzueri be aitortza egin jakuen odol-emotailien urteroko batzarrian. Hotel Unzagan egindako ekitaldixan lagunarteko bazkariaz gozatzeko tartia be egon zan.



Ekitaldixan saritutako eibartarrak. Maialen

9.920 euroko laguntza Ekingune-rendako

Hirugarrenez barritu dau Udalak Ekinguneri diruz laguntzeko hitzarmena. Astelehen gozian Udalaren Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza Saillak eta Ekingune Ekintzaillien arteko lankidetzeta eta sustapenerako alkartiak siñatutakuaen arabera, laguntasuna 9.920 eurokua izango da. Ekinguneko ordezkariaren berbetan, "aurten hillian behin ekintzaren bat antolatzeko erronkari heldu detsagu

eta asmo hori betetzia lortu dogu. Bestiak beste pintxo-pote tematikuak, aurreko astian egin zan On Ekin lehiaketia... antolatu dittugu eta, urtia amaittu baiño lehen, azarorako topaketia eta abendurako gabonEKIN afarixa antolatzen dihardugu".

Horrekin batera laster eskurgarri ipiñiko daben ekintzaillien dako gida be aurkeztu eben: "Bestiak beste, ideia bat negozio bihurtzeko emon bihar diran pausuak azaltzen dira, horretarako daguazten baliabidiak, nora jo leikian...". Debegesaren laguntasunarekin egin dabe gida.



Albistegi zinegotzixa eta Ekinguneko ordezkariak.

Kanposantuko ordutegixa

Domu Santu eguna dala eta, kanposantua ordutegi berezixan zabalduko dabe domeka, astelehen eta martitzenian, goizeko 08:00etatik 20:00ak arte. Eta azaruaren 2xan (Arima egunian), barriz, 11:00etan hildakuen aldeko mezia egingo dabe kanposantuko kaperan.



Errigora, Nafarroako uzta gure mahairaiño

Oin dala bost urte Nafarroako euskalgintzak sortutako ekimenak indartsu dirau eta, azken lau urtitan ekimenari esker lortutako 500.000 eurueri esker, Erribera aldeko euskalgintzak hainbat proiekturi ekin ahal izan detse eta ointxe "Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka" ekimenian parte hartzeko sasoa ailegau jaku. Azaruaren 8ra arte zabalik egongo dan kanpaiñian otar bi, baltza eta zurixa eskintzen dittue aukeran: 20 ekoizle, produktu barrixak... sekula baiño eskintza zabalagua. Otarrak 50 eurotan erosi leikez eta hortik 12'50 euro hango euskalgintzarako erabiliko dittue. Kalidadezko produktuekin osatutako Errigorako otarrak Eibarren eskatzeko Depor, Beleko, Gure-leku, Guridi eta Manuel tabernetara jua leike. Eskatutakuak azaruak 21ian entregatuko dittue, Untzagako jubilau etxian, 17:00etatik 20:00etara.

THE WORK
of Byron Katie



Defibelen hitzaldixa

Defibel Debabarreneko Fibromialgia alkartiak hitzaldixa antolatu dau azaruaren 7rako: Joseba Idoyaga psikopedagoguak Byron Katie-ren "The Work" (Lana) metoduaren inguruan egingo dau berba, 19:00etan Portalean. Hitzaldixa danendako zabalik eta duan izango da, baiña jua nahi dabenak izena emotia eskatu dabe antolatzailliak. Horretarako zein informaziño gehixagorako 678 068 959 / 943 70 08 28 telefono zenbakixetara deittu leike edo, bestela, asoc.defibel@gmail.com helbidera idatzi.

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Bost eguneko fisio-hidroterapia saiua Orbean

Diagnostikatu bariko gaixotasunak dittuen Eibarko umien alkartekuek (AFESD) Boris Guinzburg sendagille errusiarra ekarriko dabe datorren astian Orbea kiroldexigan ordubeteko hainbat saio eskintzeko. Fisio-hidroterapia saiuek Guinzburg-ek sortutako Aquananda metoduari jarraituko detse: "Astelehengan, urriaren 31n, hasitta eta barixakura arte, 10 ordu izango dira guztira, bost egun horretan banatuta. Goizian (10:00-11:00 eta 11:00-12:00) eta arratsaldian (16:00-17:00 eta 17:00-18:00) izango dira saiuek eta prezia 120 eurokoa da", diño AFESD-eko Marga Gomezek. Bi urteko lbairn eta sei urteko Aroaren gurasuak oin dala urtebete sortutako alkartia da eta "guraso gehixagori be zabalik dago".

Guinzburg medikua Italian bizi da gaur egun eta han izan eben bera ezagutzeko aukeria, baita uretan jardundako denporian umiak izandako progresiñua zuzenian ikusteko be. "Horregaittik egin dogu hona ekartzeko ahalegiña. Hamar laguneko taldiak osatuko dittugu eta jaixo barrittik sei urtera artekuak hartuko dittugu. Hori bai, guztieri zabaldua badago be, edozein minusbalixa dakenak izango dabe lehentasuna", diño Gomezek, Gasteiztik be izena emon dabela gaiñeratuta. Aquananda metoduek "fetuak poltsaren barruan dakan bizitza simulatzen dau, eta jarritta be egon ezin dan umia tente ipintzeko gauza da". Izena emon teko, jendiak 629 77 96 71 telefono zenbakira deittu leike.




On Ekin sarixa "Eibarrooms" proiektuarendako

Ana Mugerzaren "Eibarrooms" proiektuek eraman dau On Ekin lehia- ketako sarixa, aurtengo ediziñora aurkeztu diran zazpi proiektuen artian boto gehixen jaso eta gero. Finala aurreko astian izan zan, Eibarko Kasinuan egindako afarixan. Proiektu irabazlia gure herrira lan kontuengaittik datozeri lo egitteko, atsedn hartzeko zein bilerak egitteko tokiren bat eskintzera bideratuta dago. Holako premiñak asetzeko establezimenduaren be rezittasuna, baiña, bezerueri harrerria egitteko moduan dago: ideiareen sorztaillak planteatzen dabenez, tokixaren erreserbak on line egingo lirakez eta, ondoren, bezeruak kode batzuk erabillitta izango leuke sartzeko aukeria.



Antxon Iraolagoitia alkate-ohia hil da

Aurreko barixakuan hil zan, 91 urterekin, gure herrixan demokrazia indarrian sartu aurreko alkata izandakua. Eibartar petopetua (Estaziño kalian jaixotakua), ikurriñaren legeztatziaren eta demokraziaren etorreraren aurretik egokittu jakon Eibarko alkata izatia (1973tik 1977ra arte) eta aurretik ziñegotzixa be izan zan. Bere sasoiñan aurrera eramandako proiektuek dira Aixolako presiarena eta lpuuako kiroldexigarena. Ahalegiña egin bazeban be Eibarrera ospittala ekartzeko, azkenian hori ospitalori Mendaron eraiki zan. 2011n Peña Taurina Pedrucho Eibarresa zezenzalien alkartiaren omenaldixa jaso zeban, horren alde alkartiaren barruan egindako lanarengaittik.



Atzo arratsaldean, Sorraluzeko Herriko Antzokiak hartu zuen ekitaldian jaso zuen Gure Balioak Saria aurtengo irabazleak, Nerea Del Campo Agirre eibartarrak. Sariduna indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko "Mujeres al Cuadrado" elkartearen erantzunaren biktimei laguntzeko "Empalabramiento" egitasmoaren sortzailea eta arduraduna ere bada. Enpresa, kultura eta arlo sozialean diharduten Debabarreneko 9 lagunek osatutako epaimahaiak Del Camporen "ekimena, ausardia eta egoera zailak gainditzeko indarra" nabarmendu ditu, "bizipen pertsonal gogor batetik abiatuta, indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko konpromiso sozialean eta elkartzunean oinarritutako proiektua sortzeagatik".

NEREA DEL CAMPO (GURE BALIOAK 2016 SARIDUNA):

"INDARKERIA MATXISTA amaitzeko gizarteak konplize izateari laga behar dio"

- Nola hartu zenuen saria zuri emateko erabakiaren albistea? Ezusteko handia izan zen?

Hasieran adarra jotzen ari zirela pentsatu nuen. Aurtengo Gure Balioak saria neri ematea erabaki zutela esaten telefonoz deitu zidatenean berriak ezustekoan harrrapatu ninduen, ezin nuen sinetsi inolako saririk neri emango zidatenik. Deitu eta hurrengo asteburuan sariari buruzko informazioa bilatzen eta irakurtzen ibili nintzen eta, hala ere, oraindik sinestu ezinda nengoenez, zuzenean Debegegara deitu nuen benetan saria neri ematea erabaki zuten galdetzeko eta, baietz erantzutean, orduan hasi nintzen egia zela konturatzen.

- Saria zuri emateko arrazoietako bat "Mujeres al Cuadrado" elkartearen sorreran parte hartu zenuela izan da. Zerk bultzatu zintuen horretara?

Nik bizi izandako esperientziak eragindakoa izan zen. Bikotekidearen kontra salaketa ipini nuenean hankasartze bat baino gehiago egin nuen, asko sufritu nuen.

Gizartekintzan oso ondo hartu ninduten, laguntza handia jaso nuen, baina laguntza ematen zidatenak ondo zeuden euren bikotekideekin eta, egia esan, nik bizi izandako egoera zuzenean ezagutzen zuen norbaiten falta izan nuen batzuetan. Jabetza Eskolaren bitartez indarkeria matxistaren inguruko formazioa jasotzen joan ahal, eta beste toki batzuetan horren inguruko elkarteak bazeudela ikusita, Eibarren ere indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko elkartearen eratzera animatu nintzen. Gure herrian urtero izaten dira indarkeria matxistari lotutako salaketak eta horren biktimei laguntzeko eratu genuen elkarte. Harrezkero emakume asko etorri zaizkigu informazio eta laguntza eske.

- Horrez gain, "Empalabramiento" ize-neko egitasmoa sortu zenuen. Zelako proiektua da hori?

Elkartearen bitartez eskaintzen dugun zerbitzua da. Orain dela urte batzuk, Lanbidek emandako laguntzari esker, gazte-raz ez zekiten emakume atzeritarrei An-



dretxean klaseak ematen hasi ziren eta nik irakaslea izateko zortea izan nuen. Berehala konturatu ginen horrelako klaseen premia handia zegoela, emakume asko etortzen ziren gaztekeraz ikasi nahi zutela esaten, Helduen Irakaskuntzarako Ikastetxean denentzat tokirik ez zegoen... Gauzak horrela, laguntzeko prest zeuden beste batzuekin batera, emakume etorkinei klaseak ematen hasi ginen, boluntario bezala, eta gaur egun 100 bat ikasle dauzkagu, taldeka banatuta. Astelehenetik barixakura irakasten ibiltzen gara, goizero, eguaztenetan izan ezik.

- Zoritzarrez, indarkeria matxistari buruzko albisteak eguneroko kontu bihurtu dira azken aldian. Zure ustez, zer behar da hori aldatzeko?

Gizarteak konplize izateari lagatzea. Horrekin batera, jakina, heziketa egokia izatea ere beharrezkoa da. Berdintasunerako Planak onartuta dauden udalerrietan horiek betetzeko baldintzak eta baliabideak egon behar dira. Adibide bat ipintzeagatik: udaltzain bati herriko kaleak ezagutzea eskatzen zaion bezala, indarkeria matxista kasu baten aurrean erantzun egokia emateko formazioa izatea berdinduz eskatu behar harko litzaike. Eraso bat gertatzen denean, horri ematen zaion lehen erantzunak berebiziko garrantzia dauka, sarritan emakumearen bizia jokoan izaten da eta.

Nerea Del Campo Agirre (Eibar, 1971)

"Mujeres al Cuadrado - M²" elkartearen fundatzaileetako bat da. Eibarko elkarte hau 2010ean eratu zen, genero indarkeria jasan duten emakumeei erantzun, informazioa eman eta laguntzeko helburuarekin.

Hispaniar Filologian lizentziatua, 2013an **"Empalabramiento"** eskolak sortu eta abian ipini zituen, hitzaren bitartez emakume etorkinen ahalduntzea helburu. Proiektuan bete-betean sartuta, gaztelera irakasle boluntario gisa dihardu lanean.

Gaur egun 100 emakume inguru joaten dira klase horietara.

Eibarko Emakumearen Mahaian parte hartzen du. Mahaia udalaren kontsultarako erakundea da eta mahaikideek emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzearen alde egiten dute lan.

Jatorri ezberdineko bizilagunak gerturatzeko bazkaria

Badira urte batzuk Mugak elkarteak eta Gipuzkoa-ko Sos Arrazakeriak, Bizilagunak ekimena antolatzen duela azaroan, bazkari baten inguruan. Gaur egun herrian bizi garen jatorri desberdinetako lagunak elkartzea, elkarezagutzea eta elkarbizitza sustatzea da asmoa. Aurten, Bizilagunak ekimena Udaleko Gizarte-tekintza sailak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak sustatuko dute, Ongietorri Berbetan-era egitasmoaren barruan. Beste herrietan bezala, gurean ere azaroaren 13an, domekan, egingo dira ekimenari lotutako bazkariak. Herritar guztientzako ekimenaren gaia, bestalde, kirola izango da oraingoan eta, horregatik, Eibarko kirolariei bereziki parte hartzeko gonbitea egin nahi diete antolatzailerik. Izena ematea nahi izanez gero, ongietorri@etakitto.eus helbidera idatzi daiteke edota, bestela, 943200918 telefonora deitu.

Ekimenaren lehen urtean 400 bazkari baino gehiago egin ziren Europar Batasuneko zortzi herrialdetan (Txekian, Italian, Belgikan, Eslovakian, Maltan, Portugalen, Hungarian eta hemen, Gipuzkoan) bertako eta etorkin familien artean. Gipuzkoan topaketa SOS Arrazakeriak-ek antolatu zuen eta gurean 500 lagunetik gora parte hartzea lortu zuten: *"60 familiak zabaldurik zizkieten euren etxeko atea beste hainbeste laguni. Bertakoak ziren batzuk, beste lurraldeetatik etorritakoak besteak. Denek, domekako otorduaren mahai inguruan, bizipenenak, kezka, ametsak... elkartrukatu nahi izan zituzten eta hori zen, hain zuzen, bazkariak antolatzeko orduan lortu nahi genuen helburua: jatorri eta kultura ezberdina zuten elkar ezagutzea eta harremanetan ipintzea. SOS Arrazakeriaren ustez elkar ez ezagutzetik eta aintzakotzat ez hartzetik sortzen diren aurreiritzi*



horiek ezabatzeko modurik erosoenetako bat hori delako". Lehen esperientzia horrekin animatuta aurten ere errepika-

tu nahi dute eta horretarako antolatuko dira seigarrenez Bizilagunak ekimenari lotutako bazkariak.



13 AZAROA | **NOVIEMBRE** | **13:00**

- **ZER DE BIZILAGUNAK?** Hemengo eta atzerritik etorritako norbanakoak eta familiak mahai baten inguruan elkartzea helburu duen egitasmoa da.
- **NORK HAR DEZAKE PARTE?** Edozein familiak edota norbanakok; hau da, hurkoa ezagutzeko jakin-mina duen edonork. Eta familia diogunean, bere burua halakotzat hartzen duen edozein kidego esan nahi dugu, berdin dio nola dagoen osatuta: ama ezkongabeak, emakumezko edo gizonetzkoek osaturiko bikoteak, sexu ezberdinetakoak, haurrak dituztenak edota gabeak, bilobadun aitona-amonak...
- **ZERGATIK ANTOLATZEN DUGU BIZILAGUNAK?** Asko eta asko garelako pertsonak, bertokoak nahiz kanpotik etorritakoak, hurbiltzeko urratsa eman nahi genukeenak baina aukerarik aurkitzen ez dugunak. Eta zinez sinesten dugulako zuzeneko harreman horiek, esperientzia berriak geure adimena zabaldurik eta estereotipoak eta aurreiritziak gainditzeko modurik aproposena direla.
- **NOLA PARTE HARTU?** Dei ezazu 943200918 telefonora edo idatzi ongietorri@etakitto.eus helbidera. Familia bezala edo dinamizatzaile bezala har daiteke parte. Dinamizatzaileak alde aurretik ezagutuko ditu bere ardurapean elkarrekin bazkalduko duten bi familiak eta hauekin harremanetan ipiniko da. Bazkaria egingo den domeka horretan gonbidatuak gonbidatzaileen etxera eraman eta aurkezpenak egingo ditu eta, ondoren, eurekin batera bazkalduko du. Beraz, izena ematen duen familia bakoitzarekin harremanetan ipiniko da dinamizatzailearen bat, oinarriko argibideak jasotzeko.
- **NON BAZKALTZEN DA?** Bina familia horietako baten etxean egingo da bazkaria. Familia gonbidatzaileak egingo du bazkaria, ahal bada bere jatorrizko herrialdean tipikoa den jakiren bat prestatuta.

Betiko indarra eta pasioa galdu gabe, 10 kantuz osatutako lan berezi eta desberdina atera du Su ta Gar talde eibartarrak. "Maitasunari pasioa" taldearen 11. diskoa da eta gaurtik aurrera eskuragai izango dugu ohiko salmenta-lekuetan. Maitasuna ardatz, erritmo lasaiagoek, sentsibilitatez betetako letrek eta nahasketa elektro-akustikoak teknika eta elegantzia handiko emaitza dakarte, hori guztia 28 urteko ibilbide bikaina duen taldearen nortasuna galdu barik.

- Diskoa behin entzutea besterik ez dago lan berezia dela jakiteko. Zerk ematen dio berezitasun hori?

Berezia da besteak metaleroagoak, azkarragoak izan direlako. Esango nuke ez dela balada disko bat, ezta akustikoa ere. Gure disko guztietan beti agertu izan diren kantu lasai horien ildotik doan kantu-sorta da. Letrak orokorrean maitasunaren ingurukoak dira, gure esperientzia pertsonaletatik eta sentimenduetatik aterata daude, nahiz eta



Galdier Izagirre

AITOR GOROSABEL (SU TA GAR-EKO AHOTSA ETA GITARRA):

"Taldearen esentzia galdu gabe, zerbait desberdina egiteko gogoa genuen"

errealitate zehatza ez izan (maitasuna ingurukoeri, familiari, Euskal Herriari, galdu ditugunei, amodioaren gazi gozoak...). Gure ibilbideko intimistena da. Euskal Herriari buruzko abesti bat ere badago, "Erresistentziara kondenatuak"; aldarrikatzailea da, baina intimistagoa eta enpatikoagoa, eta maitasunetik idatitza. Gaiek egiten dute kantuak ere lasaiagoak izatea. Beste batzuetan baino gitarra akustiko eta piano gehiago dago, baina betiko Su ta Gar ere sartzen da; distorsioa ere badago, indartsu jarraitzen du. Su ta Gar-en esentziak hor jarraitzen du. "Elektro-akustiko" bazala definitu dute diskoa.

- Zergatik erabaki duzue orain, 28 urteko ibilbidea bete duzuenean, horrelako diskoa ateratzea?

Era naturalean izan da. Alde batetik beti egon da eskakizun bat gure jarraitzaile askoren aldetik. "Jo ta Ke", "Itxaropena" eta bestelako abesti ezagunetatik haratago, diskoetan jendea ez da ados jartzen gehien gustatzen zaion kantua zein den esaterokan. Hori kuriosoa da. Jarraitzaile askori emakumezkoak zein gizonezkoak izan us-te dut berdin dela horrelako kantu lasaiak

gustatzen zaizkio. Azken bi edo hiru urteetan, batzutan Xabirekin eta bestetan bakarrik, ekitaldi berezietara akustikoan horrelako bi edo hiru kantu abestera joan garenean ("Zure albotik urrun banago", "Bere hitzen faltan", "Zain zure zain" edo "Denborak" esate baterako), jendeari oso ondo sartu zaio eta horrek ere animatu gaitu. Dena dela, diskoan bakarrik gitarra akustikoarekin irtetzea ez genuen ikusten, gu distorsiorik gabe ezin gara egon.

- "Maitasunari pasioa" da diskoaren izenburua. Zer adierazi nahi izan duzue horrekin?

Buelta asko eman ondoren, alde batetik maitasuna ardatza izanda eta, bestetik, gauzak beti pasioarekin egiten ditugula eta letratan ere pasio hitza askotan azaltzen dela kontuan hartuta, hitz-joko hori egitea erabaki genuen. Gauza asko adierazten dira: maitasunari pasioa erantsi behar zaio indar handiagoa izateko, maitatzea maite duzula, orokorrean jendea maite duzula, maitasunari plus bat jartzen diozula... gero bakoitzak bere interpretazioa egin dezake. Goi-buru horretan ere gure izaera isladatzen da. 28 urte eta gero, nahiz eta gure lanarekin,



Diskoaren karatula eskutitz bat da. Zigiluan pasioaren lorea dago. Atzekaldean, kanten izenburuak eskuz idatzitako letra-motarekin eta lakre bat STG letrekin.

Hauexek dira kantuen izenburuak:

1. Bazoaz
2. Erresistentziara kondenatuak
3. Eguna argitzean
4. Nor naizen jakin
5. Inoiz ez bezala
6. Zoramena
7. Bowiek, denborari
8. Ezer pasiorik gabe
9. Amesten dugun mundua
10. Sumendia sutan

sormenarekin gorabeherak izan, zorionez pasioz egiten dugun lana da. Borxa Arrillagak idatzitako "Ezer pasiorik gabe" kanta zoragarri bezain gogorak gutariko bakoitzarengan pasioak eta berau galtzeak zein garritzi izan dezakeen isladatzen du.

- Diskoa udaberrian ateratzea pentsatzen zenuten. Baina eztarrian izan zenuen arazoarekin, ebakuntza tartean, eta gero eskuan izan zenuen istripuarekin dena atzeratu behar izan duzue...

Martxoan egin zidaten eztarriko ebakuntza. Aurretik ahotsa grabatzeko asmoa genuen, baina infekzio bat izan nuen eta ezin izan nuen. Instrumentu guztiak grabatuta zeuden uztaileko eskuko istripuaren aurretik. Uztaila eta abuztuan grabatu ditut ahotsak.

- Osasun aldetik izandako arazoak direla eta, taldean aldaketak egin behar izan dituzue. Zer moduz moldatu zarete?

Eskuan izandako istripua dela eta, kontzertu batzuk bertan behera laga behar izan genituen uztailearen amaieran eta abuztuaren hasieran. Beste gitarrista bat aurkitzea beharrezkoa zela ikusi genuen eta berehala Aitor Losada etorri zitzaigun burura. Berari deitu, egoera azaldu eta astebetara kanten %70 ikasita zeukan. 18 egunetara gurekin batera taula gainean zegoen. Berarentzako erronka handia izan da, eta gu benetan oso eskertuta gaude. Alde horretatik oso pozik gaude. Nik oraindik debora behar dut atzamarra sendatzeko, eta bitartean hor jarraitzen dut gitarra barik baino abesten. Niretzako ere beste erronka bat izan da. Orain arte sekula ez dut gitarra barik mikrofonoarekin abestu. Hala ere, oso ondo moldatu naiz. Modu positiboan hartu dut hasieratik, "Su ta Garakoek hartu naute abeslari moduan!" pentsatuz (jajaja). Desberdintasun handia dago eszenarioan egoteko moduan: beste jarrerara bat, beste postura batzuk, jendearengana jaitsi eta jendeari mikrofonoa jarri... Nahiko beldurtuta nengoen, baina gero taula gainera igo eta, gitarrarekin edo gitarra barik, Aitor Gorosabel naiz, ahotsa nirena da. Agian desberdina izango zen abeslaria ordezkatu behar izatea, hori bai izango zela arraroa! Esperientzia oso ona izan da, espero nuena baino hobeto joan da.

- Disko berri honek kontzertuak beste modu batean aurkezteko aukera ematen du. Zein formatotan aurkezteko asmoa daukazue?

Gure asmoa urtarrilean antzokietan aurkezte da, jendea eserita. Ordurako atzamarra



Galder Izagirre

Igor Diez (bajua), Galder Arrillaga (bateria), Aitor Gorosabel Garai (konpositorea, ahotsa eta gitarrak) eta Xabi Bastida (gitarrak) proposamen berri batekin datoz oraingo honetan. Letra gehienak Aitorrek idatzi ditu, baina badaude Borxa Arrillagak idatzitako bi kantu ("Bowiek, denborari" eta "Ezer pasiorik gabe" eta Xabi Bastidaren beste bat ("Inoiz ez bezala").

gutziz sendatuta izatea espero dut eta orain kontzertu batzuk lotzen gabiltza. Hau ere gutziz desberdin izango da guretzako.

- Nolako erantzuna izango du disko berriak zuen ustetan?

Orokorrean momentuz jendeari gustatzen ari zaio. Desiatzen gaude erantzuna ikusteko, eta ilusioarekin. Panorama musikala eta kontsumitzeko erak asko aldatu dira, eta hau 10 kantuz osatutako diskoa da. Gazteek ere ez dakit entzungo duten. Uste dut gure jarraitzaileek diskoa eskuratu eta entzungo dutela eta erantzuna orokorrean positibo izango dela. "Kaña brutal" nahi duenarentzat ez da izango disko hau, hurrengoa izango da, baina sentsibilitate pixka bat daukan disko hau oso gustora entzungo duela pentsatzen dut. Zerbait desberdina denez, jende gehiagorengana heltea posible delakoan nago. Antzokietakoa

ere ikuskizun desberdina izango da, printzipioz asmoa da beste fase bat izatea eta, ondoren, betiko formatoria bueltatuko gara.

- Orain dela 10 bat urte Jo Ta Ke ekoizpenak sortu eta zuen kabuz argitaratu dituzue diskoak. Nolako alde onak eta txarrak ditu autogestioaren aldeko apostuak?

Beste batzuen esku lagatzen baduzu, erabaki gutxiago eta ardura gutxiago hartu behar dituzu eta lan gutxiago egin. Baina ez daukazu zuren lanaren gain erabakiak hartzeko gaitasunik, ezta jabetzarik ere. Gure kasuan, orain lanaren gain erabakitze gaitasun osoa daukagu baina, sortzeaz eta grabatzeaz gain, disko bat kaleratzeak eskatzen duen gutzia norberak egin behar du: grabaketa estudioa, diseinua, fabrikazioa, banaketa, promozioa, teknologia berrietara egokitzea, inbertsioa eta abar luze bat kudeatzea.

Edurne Arizaga eta Laura Fernandez (Nalua)

"Alde positiborik gabe, ezingo genuke borrokan jarraitu"

Nalua Eibarko gazte feministek osatutako talde bat da. Orain arte, herriko sexu erasoak hainbat modutan salatzeaz gain, Eibarko emakumeen inguruko dokumentala, Woman In Black eta bestelako ekintzak antolatu dituzte. Momentu honetan inguruko herrietako talde feministekin sarea osatzea lehentasunezko kontua dela aipatu dute eta baita Eibarko elkarteekin lan egitea ere. Horrez gain, Eibarko hainbat eragilek osatzen duten Gazte Mugimenduaren parte da Nalua. (nalua.feministak@gmail.com)

- Nalua pil-pilean egon da Eibarko jokalarien istiluarekin...

Bai, gaur egun oraindik ere batzuek ez dute ulertzen "ez" ezetz dela. Naluaren partetik egoera salatzerako orduan, gure adierazpen askatasuna urratu dutela salatu nahi dugu. Bi ekintza egiten saiatu gara. Alde batetik entrenamendu batera joaten eta bestetik kalean protesta ikusgarri egiten eta bai Udalak eta bai S.D. Eibarrek hori galarazi dute. Horrez gain, ezin dugu ahaztu Ipuruan publikoak txaloka hartu dituela jokalaria hauek. Sare sozialetan ere, kazetari askok eta bestelakoek idatzi digute gure jarduna gogor kritikatu. Dena alde positiboa ere aipatu beharrekoa da, aste betean ia 70 jarraitzaile gehiago izan genituen sare sozialetan, komunikabide desberdinetan irten gara eta jende askoren babesa izan dugu. Alde positiborik gabe, ezingo genuke borrokan jarraitu.

- Nola dago Nalua orain?

Inoiz baino indartsuago gaude. Taldea asko hazi da eta proiektuz beteta gaude. Gainera azaroa ere gainean dugu eta hilabete honek beti eskatzen du lana. Hilabete osoan zehar Eibarko emakumeak animatu nahi ditugu egunerokotasunean jasotako eraso sexistak guri kontatzera, modu anonimoan (FB edo posta elektronikoko bidez). Horrela eraso mota guztiak identifikatzea eta plazaratzea dugu helburu. Ho-



nekin lotuta azaroaren 25erako (Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) zerbait prestatuko dugu. Bestalde, Beldur Barik lehiaketan ere parte hartuko dugu bideo batekin.

- Zeintzuk dira etorkizunerako dituzuen proiektuak?



Gure arteko formakuntza bultzatu nahi dugu hausnarketaren eta ikastaroen bitartez. Gainera kanpotik ekarritako profesionalez gain, taldekideok taldeari zuzendutako ikastaroak ere egingo ditugu, izan ere, potentzial handia dagoela uste dugu. Musika jaialdi bat ere antolatzen gabilta otsailerako, irteerak egingo ditugu, gabonetarako geure produktuak aterako ditugu (poltsak, pinak,...), ikastetxeetatik ere deitu digute NALUAren inguruan hitz egiteko,... Eta egunerokotasunean azaltzen denari aurre egingo dugu, orain arte bezala.



Iñaxia Urkiola Etxebarria

(FERNANDO MUNIOZGURENEN AMA)

Urriaren 20an hil zen, 91 urterekin

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.



...eta kitto! Euskara Elkarteak

Nola gainditu azterketak emaitza onekin

Bilatu ondoren datoziduzun eguneko **ordutegia**, gustuko **tokia** eta edukialak barneratzeko **teknikak**

Aterketa garai batean sailatu **10a** eta **elikadura**, egin **afrean-etenak** eta ez hartu **undurikako** sathuen eser

Lehenengo egunean **hasi** behar duzu **azterketak** prestatzen, **lan-egutegi** on bat **planifikatu**

Gazte Bizitza

Nola gainditu azterketak emaitza onekin

Gehiegi dirudien arren, azterketaren prestaketa ikasturtearen lehen egunean hasten da. Ikasketak behar bezala planifikatzea lana erraztuko dizu eta, modu berean, azterketa gainditzeko aukerak handitu ere. Ez utzi biharko gaur egin ahal duzuna. Azterketa sasoia garai gogorra da eta fisikoki zein mentalki asko eskatzen du. Garrantzitsua da ondo deskantsatzea eta elikatzea.

Zer egin beharko nuke azterketak gainditzeko? Ikasteak **planifikazio** bat eskatzen du; ikasturte osoan egin beharreko lan bat, alegia. Gainera, komenigarria litzateke zein **azterketa mota** egin beharko duzun jakitea (entsegua, proba objetiboa, kasu praktikoa, arazo baten ebazpena, etab.) prestaketa azterketa eredu zehatz horretara moldatzeko. **Nola planifikatu dezaket ikasi behar dudana?** Ikasketak planifikatzeko egin beharko duzun lehenengo gauza da: **1) Ordutegi bat finkatu:** hobe egun askotan ordu gutxi ikastea egun gutxitan ordu asko ikastea baino. Egunero ikasteko diziplina izaten saiatu. **2) Ikasteko toki bat ezarri:** Garrantzitsua da ikasteko berariazko toki bat izatea. Gustora zauden toki bat izan beharko du eta entretenigarri gabekoa.

Bada hobeto ikasten lagundu ahal didan teknikaren bat? Badira segi ahal dituzun zenbait jarraibide apunteen aurrean jartzen zarenerako: **1) Edukiak barneratu.** Horretarako ikasketa teknikak jarraitu beharko zenituzke: hasieran, edukien irakurketa ulerkorra; ondoren, ideia garantzitsuenak azpimarratu eta, azkenik, eskema, laburpen edo koadro sinoptikoen prestaketa. **2) Memoria landu.** Ikasteak, neurri handi batean, zenbait gauza buruz ikastea eskatzen du. Horregatik, memoria lantzeak edukiak modu errazagoan barneratzen lagunduko dizu. **3) Arreta landu.** %100ean ez bazaude denbora galtzen ariko zara. Hobe da tarte txikietan eta modu eraginkorretan ikastea orduak eta orduak apunteen aurrean modu antzuan ematea baino. **Hobe da egunez ala gauzez ikastea?** Zuri hobeto dagokizun egunaren momentua aurkitu behar duzu. Garrantzitsuena ondo deskantsatzea da; bost minutuko etenak egin ikasten duzun ordu bakoitzeko, eta eten horrek bizkortzen lagundu eta edukiak hobeto barneratzen lagunduko zaitu. Eta zaindu lo egiten dituzun orduak; behar bezala deskantsatzen ez baduzu ezin izango duzu ondo ikasi. "Neurriz giroko" ahalegina egin beharra ez da ona.

Teknologia eta zientziaren jardunaldia Armagintzaren Museoan

Zientzia eta Teknologiaren Astearen ospakizunen harira, bigarren jardunaldia teknologikoa antolatu du Armagintzaren Museoak. Oraingoan, bertaratzen direnak Robotikaren lehen urratsak ematen hasi ahal dira Arduino erabiliz, eta Makeblock ezagutu eta esperimentatu ahal dute. Makeblock erainkuntza-kit belaunaldi berri bat da, ideala Arduino ikasteko. Halaber, aukera izango dute Mbot-a eraiki eta programatzeko.

Teknologiaren mundura hurbildu nahi duen edonorentzako jardura da hau. Ez da beharrezkoa aurretiaz ezagutza espezifikorik izatea. Azaroaren 5ean, zapatuan, egingo da goizeko 10:00etatik 13:30ak arte Armagintzaren Museoan, eta gehiezin 20 lagun hartuko ditu. Sarrera doan da eta izena emateko emaila bidali behar da museoa@eibar.eus helbidera. Onarpena izen-emateen hurrenkeraren arabera egingo da. Anima zaitzete!!!!



IÑAXIA URKIOLA ETXEBARRIA

2016-X-20an hil zen, 91 urterekin



Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Eibartarren Ahotan zaharberritua aurkeztu dute

Ego Ibarra batzordeak 1999. urtean sortu zuen Eibartarren Ahotan proiektuan hainbat hobekuntza eta berrikuntza egin dituzte. Aurreko barixakian horiek aurkeztu zituzten udaletxean Idoya Sarasketa, Ego Ibarra batzordeburuak, Codesyntax enpresako Mikel Larreategi eta Asier Sarasua Badiharduguko presidentek. Azaldu zuten, "gure herriko historia eta etnografia sakonean aztertzeke helburuz jaio zen proiektua, Eibarko memoriaren, historia hurbilaren eta ondare kulturalaren berreskurapenean beste pauso bat emanez". Izan ere, proiektuaren sorreratik hona elkarrizketatu dituzten eibartarren testigantzek gure herriko historia bizia, liburuetan jasotzen ez dena kontatzen digute eta etorkizuneari ere hor egongo dira, atzetik datozenentzat. Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuen 2000-2002 bitartean eta tarte horretan egin ziren elkarrizketarik gehienak: 250 eibartar baino gehiago elkarrizketatu ziren, eta jasotako material guztia katalogatu, etiketatu eta gorde zen. Eta horretan aitzindari izan dira Eibartarren Ahotan proiektua, Ego Ibarra Batzordea eta Eibarko Udala. Gogora-



Mikel Larreategi, Idoya Sarasketa eta Asier Sarasua aurkezpen egunean.

razi zuten moduan, "azken 15 urteotan egin diren beste hainbat egitasmoren muinean dago proiektu honek ezarritako filosofia eta lan moldea".

Eibartarren Ahotan proiektuaren lehenengo bertsioa 2003an argitaratu zen, baina harrezkero ere proiektuak bizirik jarraitu du, elkarrizketa gehiago eginez eta materiala katalogatuz. Urte hauetan ondorengo materiala batu da Eibarko Udal Artxiboan gordeta dagoen Eibartarren Ahotan bilduman: 400 bat elkarrizketa, 150 zinta minutuko etiketatuta eta katalogatuta (guztira, 3.000 pasarte baino gehiago) eta 500 pasarte transkribatuta eta beste 500 bideo-pasarte online ikusgai.

Erazago eta erosoago

Hori guztia ahalik eta modurik errezenean eskuragarri ipintzeko asmoz, azken urtean azpiegitura tekniko hobetzeko lanak egin dituzte: "2003. urtean ezarritako azpiegitura egokitu eta eguneratu da, gaur egungo behar eta ezaugarri tekniko berrietara egokituz. Azpiegitura berri hori da oraingo honetan aurkezten duguna. Lehen-

go edukiarekin, baina itxuraz eta (batez ere) teknikoki hobetuta. Berrikuntza hauei esker, Eibarko ahozko ondarea errazago eta erosoago kontsultatu ahal izango dute erabiltzaileek, egindako aldaketei eta gehitutako erraztasunei esker".

Dena dela, aurrekoan aurkeztu zituzten berrikuntza horiek proiektuaren beste urrats bat besterik ez direla argitu zuten, "etenik ez duen egitasmonek honen baitan dagoen urratsa. Epe laburrera, elkarrizketa berriak egiteko asmoa dago, eta baita materiala katalogatzen eta hedatzen jarraitzea ere. Herritarrek baitira proiektu honen protagonista nagusiak".

89 hizlarik osatutako zerrenda

Orain arte katalogatu dituzten hizlarien zerrendan 89 lagun daude, "horietako gehienak, gainera, hil egin dira eta, beraz, horrek grabazioen balioa areagotu egiten du, moduren batean esateko". Hizlari bakoitzaren izen-abizenen aldameneari zinta eta pasarte kopurua zehaztuta agertzen dira eta, bideoa dutenen kasuan, horri dagokion iruditxo ere azaltzen da. Hizlariaren izenaren gainean klikatuta, berriaz, elkarrizketatuari buruzko datu biografiko batzuk irakur daitezke, sarrera modura eta, azpian, grabazioei buruzko datuak (iraupea, data...) eta elkarrizketetan jasotako pasarte ezberdinak, banan-banan bereiztuta, interesatzen zaigunaren gainean klik egin eta zuzenean hori ikusi edo entzun ahal izateko.

EGOIBARRA Eibarko kultura ondarea

Sarrera Eibar Argitalpenak Eibartarrak Argazkiak Albisteak Batzordea

Sarrera / Eibartarren ahotan / Hizlariak eta elkarrizketak / Hizlariak / Pedro Arrizabalaga Iriondo

Fibartarren Ahotan

Hizlariak eta elkarrizketak

Eibartarren Ahotan proiektuaz

Pedro Arrizabalaga Iriondo

1906 - 2007

Estazio Kalean jaioa. Izen handiko eskopetagina. Artamendi eta Zulaika-rekin ikasi zuen marrazten. 14 urterekin hasi zen lanbidea ikasten, Albisteginean. Ugartetxearen tailerlean ere lan egin zuen baina denbora gutxira bere izena daraman eskopeta tailerra ipini zuen: Pedro Arrizabalaga. Gaztetan, dantza eta kantuan egitea asko gustatzen zitzaion, baita gitarra jotzea ere. Oraindik trikitia oso gustoko du. Gerra garaian familia osoak Axpe-Arrazolako baserri batera alde egin zuen, eibartik ihes eginda. Ehibitari amorratua izandakoa.

Zintak

#	Kodea	Iraupena	Grabazioaren data
1	AB-019	35 minutu	1989-11-27
2	AB-051	60 minutu	1992-10-09
3	AB-164	80 minutu	1999-11-24
4	AB-617	0 minutu	2000-01-04

Hainbat andra-gizon elkarrizketatu eta gero, esandakoak Interneten eskuragarri ipintzen joan dira, ahozko ondarea batuta.

EZTEIEN

36. zenbakia
2016ko **UDAZKEN**eko gehigarria



Argazkia: Josu Torrealday

GEHIGARRIA



ROCA
CALBETON, 16
-EIBAR-
TEL. 943 20 80 06

**Ezkontza egunerako guztia...
...ZURE ESKU!**



94 465 75 77
www.bagoaz.com

bagoaz

Matienan gaude
Eibartik 10 minutura
(autopistan Abadiñoako irteera)

**BIDAIA PERTSONALIZATUAK
EZTEI BIDAIAK**

bidaiak f bagoazbidaiak viajes



El Corte Ingles-ean

El jardín de tulipa
FLOWERS&DECO

943 20 88 47
645 67 85 76

J. Salaberria
Bitxitegia



RELOJERIA
SALABERRIA

Errebal, 22
943 20 20 79



Argazki-irratzofestudio
argazki-irratzofestudio
WWW.JOSUTORREALDAY.COM
contacto@josutorrealday.com | 679950858



Argazkia: Josu Torrealday

Ezkongaiek hilabete asko, urtebete baino gehiago ere, ematen dituzte euren ametsetako ezkontza prestatzen. Egun horretan dena perfektu ateratzea nahi dute eta estres-maila altua izaten da. Erabakiak hartu behar dira hainbat detaileren gainean: emaztegiaren soinekoa eta senargaiaren trajea, orrazkera, ezkontza-eraztunak, loreak, jatetxearen dekorazioa, menua, gonbidatuen zerrenda, musika, oparitxoak, bidaia... Lan nekagarria da fisikoki zein mentalki. Baina ezkontza bat antolatzea ez da ez hain zaila ez hain erraza, nahiz eta askotan sorpresak ekartzen dizkigun. Egin behar duguna da adituengana jo eta haien aholkuez baliatu.

Autoa

Bikote bakoitzak nahi duen moduan azal daiteke zeremoniara eta eztei-otordura: autoz, motorrez edo oinez ere bai. Gainontzeko guztiarekin gertatzen den bezala, hori bakoitzaren gustuaren, nahiaren eta estiloaren arabera aukeratuko da. Baina gure ezkontza aukera ona izan daiteke kapritxo bat eman eta luxuzko auto bat edo auto klasiko bat alokatzeko. Jaguar edo Rolls-Royce, esaterako. Mota horietako autoak alokairuan dituzten enpresek gidaria ipintzen dute gure esku, etxera gure bila etorri eta zeremonia egingo den lekura eramateko. Eta handik argazki-erreportajea egitera, eta ostean, jatetxera.



San Juan, 1
943 20 33 29

Iradi

M A R S I



bidebarrieta, 1
943201626
639403457



Argazkia: Josu Torrealday

Argazki-erreportajea


Ezkontza prestatzen hilabeteak ematen ditugun arren, eguna berehala pasatzen da. Argazkiak ezkontzaren oroitzapen iraunkorra dira eta aukera emango digute momentuak gogora nahi beste ekartzeko. Horregatik oso inportantea da ezkontzaren argazki-album ona izatea. Aro digitalak hamaika aukera ematen dizkigu, hala ere, ezinbestekoa da argazkilariari zein motatako albuma nahi dugun adieraztea, guretzat inportantea zer den eta garrantziari zeri eman nahi diogun. Eta batez ere erlaxatu eta bere profesionaltasunekin fidatzea.

Tradizioz, argazkiak ezkontza egunean bertan egin dira, zeremonia eta eztei-banketearen arteko tartean. Baina gaur egun, gero eta bikote gehiagok ezkontzaren aurretik edo ostean egiten dute argazki-saioa. Hala, lasaiago egon daitezke eta denbora luzeagoa dute gonbidatuekin egoteko. Eszenatokiak ere aldatu dira eta bikoteek leku ausartagoen alde egiten dute. Izan ere, lantegi abandonatuek edo txatarategiek ere badute bere xarma eta, hondartzak edo lorategiak bezala, haiek ere leku erromantikoak bihurtu ahal dira. Are gehiago, bikote batzuek bidaia merkeak topatzen dituzte eta argazkilaria Parisera edo Karibera eramaten dute, argazki-erreportajea bertan egiteko.

Beste aukera bat izan daiteke gure gustuen arabeko gai bat aukeratu eta argazkiak horretan oinarrituta egitea. Animaliek inguratuta, musika jotzen, pelikula bateko pertsonaiak izango bagina moduan... Gure erabakia bata edo bestea dela, ezinbestekoa da gure argazki-albumean inoiz ahaztu nahi ez ditugun momentu horiek egotea.

Loreak

Lore-sorta ere soinekoaren eta gure gustuen arabera aukeratu behar du. Emaztegai gehienek *bouquet* estiloko lore-sortak nahiago badituzte ere, ausartagoak direnak eta beste forma modernoago batzuen alde-



Argazkia: Josu Torrealday

CASTANO
PELUQUEROS

Facebook icon Twitter icon

943 207047
Fermin Calbeton, 1

contacto@castanopeluqueros.es
www.castanopeluqueros.es

fasprint
Inprimategia - Serigrafia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan eta papertegian orokorrean

fasprintei@yahoo.es
Ego Gain, 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak

Khôl
Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

C A P I
www.capiestetica.es

Aurpegi tratamenduak

- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mesoterapia

**BETILE LUZAPENAK / LIFTING-A
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO MANIKURA
eta PEDIKURA**

LASER DEPILAZIOA **30€**
Hanka osoak + Izterondoak: 90€ zona bakoitza

**GORPUTZ
TRATAMENDUAK**

TEKNIKAK:
Kabitazioa / Radiofrequentzia
Laser lipolitikoa / Presoterapia
Elektroestimulazioa /
Mesoterapia

Masajeak

Powered by **BODY**

Ipini zaitetz sasoi onean ...
... astero bakarrik 20 minutu eginez

AIZKIBEL, 10
- AZKOITIA -
943-853412

josebajatetxea@hotmail.com

Joseba
JATETXEA



*Itxura aldaketa berriarekin,
ilusioz eta indarberrituta gatoz
ospakizunetarako!*



EZKONTZA tartak
eta
despedidetarako
(SASOIZ ENKARGATU)

ANTXON
DEGUSTAZIOA

T. ETXEBARRIA, 13
943 20 63 22



Loiola, 24

-AZPEITIA-

943-815608

www.kiruri.com

info@kiruri.com

Kiruri



- Ezkontzak
- Bataioak
- Jaunartzeak
- Eguneko menua
- Taldeko menuak
- Karta...



Argazkia: Josu Torrealday

ko apustua egiten dutenak ere badaude. Hori bai, emaztegai bakoitzak bere lorarik kutunena badu ere, arrosak, kalak eta orkideak beti daude modan.

Ezkontzaren beste lore-detaile guztiak ere, hala nola autoaren apaingariak, zeremoniako loreak eta eztei-oturuntzan mahai erdian ipiniko diren lore-zentroak, gure lore-sortaren arabera aukeratu ahal ditugu, denen artean harmonia sortuz. Trajearen papar-hegalean lore bat edo beste detaile bat eramatea senargai bakoitzaren erabakia da, baina lore bat ipintzea erabakitzen bada, komenigarria da emaztegaiaren lore-sortan inspiratuta egotea.

Lore bakoitzak bere esanahia duela diote, eta haien koloreek gauza ezberdinak adierazten dituztela. Horregatik oso inportantea da gure lore-sorta oso ondo aukeratzeta. Lore munduan adituak lagunduko digu erabakiak hartzen eta gure ezkontzari giro paregabe eta zoragarria ematen

Pastelak

Jatetxeek menuaren barruan eztei-pastela eskaintzen badute ere, nahi badugu, tarta pertsonalizatu bat eskatu ahal dugu enkarguz. Nahi dugun zapozkoa eta nahi dugun formakoa. Era berean, keinu polita da gure ezkontzara etorri ezin direnak edo gonbidatu ezin ditugunak goratzea eta pastelak bidaltzea.

Ezteiak Euskal Herrian

Euskal Herriko ezteiei buruz gehien zehaztu den tradizioa XIX. mendetik abiatu eta XX. mendeko erdialdera luzatzen da, tradizio modernoko ezteiak nagusitzen direnean. Epe horretan nabaria da Eliza Katolikoaren eragina ezteien ospakizunetan, baina lehenagotik jasotzen diren elementuak ere badaude, etxe-sartzearen erritua esaterako. Ezteien abiapuntua ezkongaien ezkontzeko nahia publikoan agertzen dutenean gertatzen da. Horretarako, mezan deiune izenekoak egiten ziren, ezkontzaren aurkako argudio edo erreklamazioak egiteko aukera emateko. Deiuneak hiru alditan egin ohi ziren, igandeko mezetan. Horietan, ezkongaien zuten ezkontzeko asmoa aldarrikatzen zen. Bitartean, ezkongaien familiek auzolagunen bisitak jasotzen zituzten zorionak emateko. Herri batzuetan, andregaiaren lagunek toberak edo burnizko palankak jotzen zituzten bere etxe aurrean, bertsoak kantatuz aldi berean. Agur-festak antzinean deiune-aldian egiten zen, herri guztietan ospatzen ez baziren ere.



Argazkia: Josu Torrealday

Ezteietarako gonbiteak hitzez eta gonbidatuen etxera joanez egiten ziren. Gonbidatuak osaba-izebak, lehengusuak eta gertuko lagunak izaten ziren antzinean ere. Opari gisa, garai batean eztei-eguna baino lehen etxerako tresnak eta osagarriak (baxera, izarak, eskuoihalak, altzariak) eta janariak ematen zitzaizkien. Ezkontza eta eztei egunerako murrizketak ere baziren: Garizuman ezin zen ezkondu, ezta Eguberrietan ere, Ameriketara joan behar edo neska neska bat haurdun geratzen zen kasuetan izan ezik; eta horrelakoetan premiazko ezkontza egiten zen, gero beste meza batez baieztatu behar zena.

Euskal Herrian ohikoa zen garai batean etxe-sartzea erritua egitea ezteietan: emazte berriak bere arreoa etxe berrira eramaten zuen idigurdiz.

Ezkongetako bat dolu-aldian zegoenean ere ezin zen ezkontzarik ospatu eta atzeratu egiten zen, kasu horietan dolu-aldia laburragoa izaten bazen ere. Ezkontzeko egun aproposena eguna izaten zen herri askotan, aste bereko domekan eliz-hartzea eta kontraetzeia ospatu ahal izateko. Beste herri askotan zapatu eta domeketan ospatzen zen ezkontza. Martitzena eta barixakua zorte txarreko egunak ziren ezkontzeko. Orduari dagokionez, goizean goiz egiten ziren, goizeko bederatziak aldera beranduenez. Urteak aurrera egin ahala, ordua atzeratzen joan da eta egun gehienak eguerdian eta batzuk arratsaldez ere egiten dira.

Egun, andregaiak gehienetan soineko zuria janzten dute, baina 1940ko hamarkadara arte andregaiak soineko eta zapata beltzak janzten zituzten, senargaiak bezalaxe, eta egun eskuetan eramaten den lore-sortaren ordeztu, errosarioa eta meza-liburua. Buruan mantila janzten zuten. Soineko zuria handikien familietako ezteietan janzten zen. Zeremonia katolikoa burutzean, ezkonberriak suziri eta eskopeta-tiroen artean irtezen ziren elizatik.

Arroz-zaparrada XX. mendeko azken hamarkadetan nagusitu den ohitura da eta horren ordeztu herri askotan gozokiak botatzen ziren garai batean. Ezkonberrien etxera segizioa egin eta oturuntza egiten zen, sarri kanpoaldean. Garai batean ezteien ondorengo igandean etxeko andre berriak senarraren familiaren hilobiaren aurrean eskaintza egitea ohikoa zen, eliz hartzea edo hilobi hartzea izeneko ekitaldian. Egun horretan bertan, bazkari berezi bat egiten zen etxeko eta familiakoen artean, kontraetzeiak edo etxeko boda izeneko 1930eko hamarkadara arte indarrean izan zen beste ohitura bat etxe-sartzea izan zen, herri askotan eztei-egunean bertan egiten zena. Ekitaldi honetan emazte berriak bere arreoa edo altzari, erropak, izara eta abarreko tresnak ederki apainduta-ko idi-gurdi batean eramaten zituen etxe berrira.

Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

www.kantabriajartetxea.com
kantabria@kantabriajartetxea.com

EZKONTZAK BATAIOAK

JAUNARTZEAK

Arrate Gaina, 4 • 279 Postakutxa • 20600 EIBAR • Tel. 943 121 262

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA.JARTETXEA

ROSANA

ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

LAKETT: zure EDERTASUN SEKRETUA!

Estetika Masajea

Tratamendu personalizatuak:
SENARGAIA
EMAZTEGAIA
AMABITXIA...

Zezenbide, 4
www.lakett.com
943 53 00 66



osasun DOSIAK



iokin elortza
BOTIKARIA

Nekea

Nahiz eta guztioi denbora gehiago pasa dela iruditu, hilabete pasa da uda atzean utzi, eta udazkenean sartu ginela. Normalean, kosta egiten zaigu udan izan ditugun ohiturei, edo ohitura faltei, buelta eman, eta egunerokotasunean berriro murgiltzea. Horrela, asko izaten dira sasoi honetan energia falta somatu, eta farmaziara laguntza eske datozenak. Farmazian, eskaintza ugari daukagu energia falta horri aurre egiteko, baina gehien erabiltzen dena, Jalea Real-a edo "Erregina-jalea" da.

"Erregina-jalea" erleek sortzen duten sustantzia bat da, eta sustantzia honekin, erle-erregina elikatuko da bere bizitza osoan zehar. Gizakiengan, erabilpen ugari ditu, azalarentzat, tentsioarentzat, antiseptiko bezela... baina guztietan ezagunena, eta erabiliena, nekeari aurre egin eta energia lortzekoa da. Askotan bakarrik erabiltzen bada ere, beste askotan beste produktu batzuekin batera agertzen da, hauetan ezagunena, Ginseng-a eta Propoleoa izanik. Hauekin, energia maila



altuago bat lortu, eta udazkene-
negu garaian hainbeste behar ditugun defentsa mailak ere igotzea lortzen dugu. Beraz, sasoi honetan ohikoa den nekeari aurre egin ezinik bazaude, pasa zaitez farmaziatik eta ziur arazoari aurre egiteko produktu egokia aurkituko duzula.

Pribatutasuna sexu-harremanetan

Gaur egun pertsonen pribatutasunari garrantzi handia ematen zaiola pentsatu dezake batek baino gehiagok. Datu pertsonalen protekzioarako legeak bermatzen du eman dugun informazio pertsonala ez dela beste helburu batzuetarako erabiliko, soilik une horretan aukeratu dugun xedearekin erabiliko dela, alegia. Ematen du gure datuak (helbidea, telefonoak...) edozeini ez ematearen kontzientzia zabaldua dagoela gizartean. Baina, bestalde, ez zaigu hainbeste inporta beste pertsonen kontu pertsonalak eta askoz ere intimoagoak direnak argitara ematea.

Honekin orain dela gutxi Eibar Foball taldeko bi jokalarirekin eta ezagutzen ez dudana (eta ezagutu nahi ez daudana) neska batekin zoritxarrez gertatukoaren gainean dihardut. Gertakari horrek jendearen artean zera eragin behar zukeelakoan nago: indiferentzia edo axolagabetasuna.

Gertakari hau hasieran guztiek adostutako sexu-elkartze pribatua izan zen. Antza denez, hiru helduek grabazio bat egitea erabaki zuten, hau ere elkarrekin adostutakoa eta pribatua. Eta hor amaitzen da istorioa... edo amaitu beharko luke!

Ba ez... Lehenengo akatsa: pribatua zen bideoak sarera salto egin



arrantza
alvarez
SEXOLOGOA

zuen eta arlo publikokoa izatera pasatu zen. Eta, kasu honetan, ez zegoen adostasunik tartean zeuden pertsona guztien artean. Bakoitza libre da bere bizitzarekin eta sexualitatearekin zer egin nahi duen erabakitzeke, besteak errespetatuz eta norbere burua errespetatuz. Gertakariaren zein momentutan erabakitzen du baten baten hain eduki intimoa duen bideoa zabaltzea? Nahiz eta "bakarrik lagun batekin partekatu", jakin badakigu morbo kaltegarriak bideo hori berehala hedatzea ekarriko duela. Baldarrak gara gero!...

Eta erantzunkizuna ez dago bakarrik hedapen hau hasten duenaren gainean. "Niri pasatu egin zidaten eta orduan..." aitzakiarekin leku guztietatik zabaltzen ahalbidetzen eta laguntzen ari gara. Nolako erreztasunarekin konpartitzen ditugun mugikorretako edukiak! Zelako erreza den guri eragiten ez digunean! Zer gertatzen da? Ez daukagu arreba, alaba edo lagunik emakume horren lekuan jartzeko? Eta guk, emakumeok, gutako bati buruzko horrelako zerbait hedatzea lagatzen dugu eta berdina zaigu?

Hiru helduen bideoa sexua praktikatzen... ez da hain misterioitsua, ezta? Zabaltzerakoan ez dakit kontzientzia garen pertsona inplikatua daudela eta euren nahia honek guztiak inoiz galdu behar ez zukeen pribatutasuna berreskuratzea izango dela.





Bi garaipen eta porrot bakarra waterpoloan

Aipatutako horiek dira aurreko asteburuan jokatutako azken jardunaldian waterpoloko hiru talde seniorrek lortutako emaitzak. Euskal Herriko 1. Mailan jokatzen duen sortu berri Urbat 3H nesken taldeak 6-9 irabazi zuen Lautadaren igerilekuan eta itxaropentsu jarraitzen du. Irabazi egin zuen ere maila bereko gizonzkoen taldeak, ligako hirugarren jardunaldian bere lehen garaipena eskuratuta: eibartarrak 8-11 nagusitu ziren Donostian Fortunaren aurrean. Senior mailako bigarren taldeak, bestalde, galdu egin zuen Getxo B-ren aurka (16-5) Euskal Herriko 2. mailako partiduan.

Aste honetan Urbateko talde guztiak etxean, Orbea kiroldegian, jokatuko dute: gaur, 21:45ean, 1. Mailako Urbat-Urkitronik eta Bidasoa XXI taldeen artekoa izango da, eta bihar jokatuko dira beste hirurak. Emakumezkoen Urbat 3H-k Getxo hartuko du 20:30ean eta, aurretik, kadete mailakoek liga hasiko dute MP Donostia hartuta (14:30) eta gizonzkoen bigarren taldeak Easo hartuko du jarraian (15:45).

Eibarrek Villarreal hartuko du etzi eguerdian

Aurreko zapatuan Cornellan partidua zelan amaitu zen ahazteko asmoz jaso du Eibarrek Villarreal Ipuruan domeka eguerdiko 12:00etan. Aurkari zailenetakoa izango dute Mendilibarren aginduetara jokatuko dutenek, orain arte partidurik galdu gabe diharduten "urpekontzi horiak". Azken bi partiduetan, bost gol sartuta ere, sei jaso dituztenez, eibartarrek hobeto itxi beharko dute euren aterako bidea. Bestalde, martitzenean klubeko ordezkari zabalak (argazkian) izan zen LaLigako Galan eta bertan Florian Lejeune aurtentzako Gironatik fitxatutako atzelariak azken denboraldian 2. A mailako defentsa onenaren saria jaso zuen.



Akzionisten batzarra azaroaren 24an

Eibar FT-ko Ohiko Batzar Orokorra egingo da egun horretan eta hor denboraldi berriari begirako 43,6 milioi euroko aurrekontua aurkeztuko dute agintariek. Inoizko kopururik handiena da, gehienbat telebista eskubideen eraginez: horko sarrerak 39 milioi eurora igo dira aurtentz, iaz baino 12 milioi gehiago.

Rugbilariak bihar liderrari aurre egiten

Aurreko asteburuan Valladoliden jokatutako partiduan El Salvador B-ri 12-15 irabazita, Eibar Rugby Taldekoek denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten. Zaila izango da, dena dela, bide beretik jotzea, bihar Unben UBU Colina Clinic sailkapeneko liderra hartuko baitute (partidua 16:30ean hasiko da). Errugbiar gozatzeok aukera paregabea izango da, beraz. EzDok Eibar Rugby emakumezkoen taldeak, bestalde, garaipen argia lortu zuen aurrekoan Logroñon, bertako Marzola Riojari 0-65 irabazita. Gazteenei dagokionez, 18 urtetik beherakoek galdu egin zuten eta 16tik beherakoek erraz irabazi Zarautzeko Babyautori.

Oraingoan Elciegon (Errioxan) Marques de Riscalen duen hotelean (Luxury Collection Hotel, 5 izar) gaua pasatzeko txartela (spa + vinoteca + gosaria barne) 1€



Gabonetako OTARRA

2.000 €ko balioa duen Otarra

Prezioa: 1€

Zaketa 2016ko abenduaren 14an egingo da

Zbk: Fuskara Fikarlea

SALMENTA LEKUAK:

El Corte Ingles / Echetto prentsa
Arriola prentsa / Correos / Isasi
okindegia / Mujika harategia /
Maria Ospital / Otegui / Bolintxo

GAUR (19.00-21.00)
BIHAR (13.00-14.00)
KALEAN EROSTEKO
AUKERA

2.000 €ko Gabonetako OTARRA



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi

Ipuruako gimnasta infantilak nagusitu ziren Euskalgym-ean

Gasteizen ere bikain jardun zuten Ipuruako infantil mailako bi taldeek eta, hori gutxi balitz, podiumera igo ziren Euskalgym torneoan. Urrezko domina eskuratu zuten Ipurua B-koek (Izaro Altuna, Ana Portu, Sara Etxaburu, Sara Aranguren eta Ainhoa Bizkarra), 10 mazen egindako ariketan ia perfektiora iritsita, eta brontzezkoa irabazi zuten Ipurua A-koek (Indira del Pino, June Heredero, Lur Aranburu, Maddi Teran eta Enara Bilbao), Laredo-

ko bigarrenengandik hamarrek bakarera. 30 taldetik gora hartu zuten parte Espiniako Txapelketara begira entsegu ezinhobearen proba horretan. Senior mailako taldeak, bestalde, Margarita Mamun Olinpiadetako txapelduna izan zen Euskalgym Galan hartu zuen parte. Hor lehiatu zuen boskoeteak (Elene Varela, Nahia Arguiz, Malen Txurruka, Elena Sudupe eta Jenni Hernandez) seigarren postua lortu zuen. Bihar aukera polita izango du-



gu eibartarrok herrian dugun mailaz jabetzeko, Ipuruak antolatuta, kiroldegian jokatu-

San Andres Torneoaren XVIII. edizioan, guztira 16 klubetako partaideekin.



Hiru eibartar Ibizako distantzia luzeko triatloian

Emaitza bikainekin bueltatu ziren gainera domekan jokatu zen probatik. Distantzia horretan (4 kilometro igerian, 120 bizikleta gainean eta 30 antxitxiketan) debutariak ziren Pello Osorok eta Ane Ziaranek denboraldiko ibilbide bikainari eutsi zioten: Osoro seigarrena izan zen sailkapen orokorrean eta Ziaran 15. emakumezkoen (bigarrena bere mailan, 25etik 30 urtera artekoan). Proba horretan aurretik ere jardundako Iñigo Unanue 54. izan zen sailkapen orokorrean eta Espainiako txapela jantzi zuen beterranoen bere mailan (50etik 54 urtera arte). Saltoki Trikideak Ziaranen taldeak distantzia luzeko Espainiako Txapelketa irabazi du emakumezkoen mailan.

Bittor "Sumendixa" Euskal Herriko hiru txirloko txapelketaren borrokan

Soraluzeko Ezozia auzoko bolatokia jokatuak azken jardunaldiaren ondoren, Asola Berriko ordezkaria berdinduta dago lehen postuan Jabier Osororekin. San Migueleko elgoibartarra ez da aurkari errazena izango eibartarrentzat, Gipuzkoako eta Lehendakari Txapelketetan jaun eta jabe izan zalako Osoro. Ezozian Garmendipeko Yaris Caballero izan zen onena, zazpi txirlorrek, Iruzubietako Patxi Olabarria eta Asola Berriko Bittor Astigarragaren aurretik, sei txirlorrek. Bihar ez da tiraldirik izango eta hurrengo Markina Xemeingo Iruzubietan jokatu da azaroaren 5ean.



Kiroldegia neguari begira

Ipuruako kiroldegia neguko ordutegia jarriko du indarrean azaroaren 1ean, martxoaren 26ra arte iraungo duena. Horri jarraituz, domeka eta jai egunetan zabalik egongo da goizez (09:00-13:00) eta arratsaldez (16:00-20:00). Bestalde, domeketako patinaje saioak ere hasiko dira egun horretan eta jarraipena izango dute azaroan (6, 13, 20 eta 27an), abenduan (4, 11 eta 18an), urtarrilean (8, 15, 22 eta 29an), otsailean (5, 12 eta 19an) eta martxoan (5, 12, 19 eta, denboraldia amaitzeko, 26an).



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net

www.kolorlan.com

667 54 89 16 (Ritxar)



KOLORLAN
PINTURAK

202 atletek hartu zuten parte Asier Cuevas herri-krosean

Aurreko zapatuan giro ezinhobean jokaturako proban 202 atleta heldu ziren T. Etxebarria kalean kokaturako helmugara zazpi kilometro eta erdiak osatu ondoren. Endika Donnay arrasatearra nagusitu zen, 23 minutu eta 30 segundoko denborarekin, Imanol Larrañaga azkoitiarraren eta Jon Garate elgoibartarraren aurretik. Julen Teran izan zen lehen eibartarra, seigarren postuan. Lasterketa horretan 35 emakumek hartu zuten parte eta hor Ainhoa Sanz urretxuarra izan zen lehena helmugan; bere atzetik sailkatu ziren Aitziber Urkiola eibartarra eta Sonia Alonso oriotarra.



Herri-krosa amaituta, podiuma osatu zutenen eta saritutako argazkia. **Maialen**

Herriko judokak Eibarren jokaturako den jiu-jitsuko Espainiako Kopa bideratzen

Kalamua klubetik Landetako Ville de Dax-era joandako ordezkariak gure herrian jokaturako den txapelketa horretan beste hainbat klubaren presentzia lortu du aurreko zapatuan Frantziako departamentu horretan emandako mailari esker. Horrela, Saint-Girons, Baiona (Landetako departamentua) eta Bordelek (Goi Errendimenduko Zentroa) gurean izango direla hitza eman zuten. Aipaturako Dax-eko torneoan, bestalde, 110 kirolari izan ziren kadete, junior eta senior mailetako lehiaketetan, euretako zazpi Kalamuakoak.



Iker Martinezek urrezkoa irabazi zuen kadetetan eta Nekane Mugaruzak eta Abderrahim Elbakalik brontzekoa junior-seniorretan. Han izan ziren ere Mikel Marin, Garikoitz del Barrio, Julen Ramon eta Unai Abasolo.

Garajes Garcia eta Machado Tankemans indartsu foball-zaletuan

Denboraldi honetan izen berriak agertzen zaizkigu KirolBet liga torneoaren goiko postuetan; gainera, indartsu daudela erakutsi dute, azken asteburuan kasurako. Horrela, L.P. Machado Tankemans bigarren sailkatuak 4-1 irabazi zion Durango gaur egungo txapeldunari eta Garajes Garcia partidu guztiak irabazten jarraitzen du, azkenean Ipur Sagardotegiari (5-1). Azken hau da liderra gaur egun eta Machado Tankemans du hiru puntura eta Sporting bostera (azken honek 5-2 irabazi zion Alkidebari). Golegileei dagokionez, Yosu azken denboraldiko goleatzaile nagusiak dagoeneko 11 gol sartu ditu bost jardunaldiotan; atzetik du Sportingeko Asier, zazpirekin. Asteburu honetan, Domusatu Eguneko zubia dela-eta, ez da jardunaldirik izango.

Zure enpresa erakusteko
leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2017

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus





2PRINCESESBARBUDES taldea

- Zer da "Gaueko Entziklopedia Koxkorra"?

"Gaueko Entziklopedia Koxkorra" "Enciclopèdia baixeta de la nit" katalanezko diskoaren euskararako egokitzapena da. Disko honek gaueko kontuak hizpide dituzten 13 abesti biltzen ditu. Letrak ere taldeak osatuak dira, Xavi Grimau poeta katalanak ("Gaua marrazki bat da") eta Maialen Lujanbio bertsolariak ("Ondo lo egin") idatzitako biak izan ezik. Gaztelupeko Hotsak-eko Xarra eta Ubanerekin dugun adiskidetasunaren haritik sortu zen disko hau euskarara egokitzeko ideia. Erraz onartzen ditugu proposamen ezohikoak...

- Zergatik euskaraz?

"Pilarik gabeko jostailu-tresnekin egiten dugu musika"

Bihar, zapatua (urriak 29), "Gaueko Entziklopedia Koxkorra" ikuskizuna eskainiko du 2princesesbarbudes taldeak Coliseo Antzokian, 17:00etan. Helena Casas eta Marc Marcé kataluniarrek osaturiko musika taldea da 2princesesbarbudes. Haurrentzako eta familientzako ikuskizunak eskaintzen dituzte. Pilarik gabeko jostailu-tresnekin egiten dute musika, eta pop estetika minimalista eta poesia letra burutsuak dituzten kantuak interpretatzen dituzte.

Halako jakin-mina izaki, Helena Casasek (katalan filologian lizentziatua) euskara ikasi zuen Bartzelonako Hizkuntza Eskola Ofizialean Ainhoa Aranburu irakaslearekin. Erronka ez ezik jolasa ere izan da neurri batean biezat disko hau grabatzea. Ainhoak egokitu ditu letrak eta zuzendu du Helenaren ahoskera. Abentura honetan Ainhoa bihurtu da hirugarren printzesa bizardun. Betiko euskal musikarekin interesatu zen Helena, eta halaxe ezagutu zituen disko honetan lagun izan dituen Maialen Lujanbio eta Joseba Tapia. Maialen Lujanbiok idatzi du diskoko azken abestia ("Ondo lo egin"), Joseba Tapiarekin batera abestia. Gainera, hainbat ahotse-

kin grabatu du Joseba Tapiak, eta barkarkako pasarte bat jotzera ausartu da jostailu-trikitiarekin!

- Beraz, zapatuko arratsalderako primerako plana eskaintzen duen ikuskizuna da...

Familia osoarentzako musika-ikuskizunaren formatua du lan honek, clown, objektuen antzerki eta ikusizko poesia ukituekin. 4 urtetik gorakoentzako ikuskizuna da eta 45 minutuko iraupena du. Gaueko piztiak, Alexandre Bonanit Jau-naren astronomia irakaskuntzak, eta berearekin batera gau ona igarotzeko hortzak, tresnak eta tramankuluak daramatzan sagu txikiaren ibilierak dituzte hizpide ikuskizun honetako abestiek.



Euskaldun baten HIZKUNTZA-BIDAIAZ

Horren inguruko hitzaldia eman zuen Karmelo Ayestak martitzenean. Unibertitate-sasoian euskalduntzeko erabakia hartu eta gero, euskaldun izateko bidaia horretan bizi izandako esperientzia azaldu zuen Karmelok: euskaraz hitz egiteko motibazioa non aurki genezakeen, hainbat egoeraren aurrean izan ditzakegun arreiritziak eta horiei aurre nola egin, hobetze-prozesua, erabilera areagotzeko gakoak... Horrelako hamaika kontu bildu ditu hizlariak bere liburuan.

BARIXAKUAK JOLASIAN-en ikasturte berria

Guraso berbalagunentzat ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Barixakuak Jolasian ekimenak aurreko barixakuan egin zuen ikasturteko lehen saioa: giltzatak eta brotxeak egin zituzten etxeko txikienek, gurasoek lagunduta. Hogeitik gora ume gerturatu ziren ...eta kitto!-ra eta, arratsalde polita pasatzeaz gainera, eskulan zoragarriak eraman zituzten etxera. Hurrengo saioa azaroaren 18an izango da, 17:30ean.





Poesia zapatua Itzamnan

Bihar arratsaldean, 18:00etatik aurrera ikasturteko lehen "Poesia Zapatua" hartuko du Itzamna akademiak, Mercedes Lopezen parte-hartzearekin. Poesia taillera gidatzen duen Maite Lorenzok dioenez, "gonbidatua artearen arlo ezberdinak (poesia, artisautila...) lantzen dituen emakumea da eta saioan berak sortutako poemak bere ahotan entzuteko aukera izango da lehenengo". Azaroaren 8an, bestalde, Mutrikuko Txalaparta tabernan poesia-afaria egingo dute.

Sanandresak 2016 kartela

Kartel lehiaketako epaimahaiak aho batez erabaki du saria "Festak" izenekoari ematea. Egilea Burrianako (Castellon) Juan Diego Ingelmo Benavente da. Horrez gain, 11 eta 14 urte bitarteko artean Lore Arregiren "Arre Sanandresetara!" sari dute eta 10 urtera arteko artean, berriz, Eider Zubikarai Rodriguezen "Pink azoka". Lehiaketara 73 lan aurkeztu dira guztira, 22 helduen kategorian.



Hainbat artistaren lanak Topalekuan

Arrate Kultur Elkartearen bazkideen erakusketa zabaldu zuten aurreko barixakuan Topalekuan: Maite Arriaga, Jesus Belaustegi, Elisabete Eguren, Esther Fernandez de Maruri, Esther Galarza, Natalie Garrido, Arrate Osoro, M^a Carmen Piriz eta Espe Zabalaren lanak azaroaren 6ra arte egongo dira ikusgai, astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

80ko doinuak domekan

Eibarko Musika Bandak domekan, 12:30ean Coliseoan emango duen kontzertuan Debako "A Santo de Que" boskotea izango du lagun. Aurreratu digutenez, "emanaldian joko dituzten abestiak oso ezagunak izan ziren 80. hamarkadan" eta, hori prestatzeko, astebarruan denak elkarrekin ensaiatzen ibili dira.



Bertso-paper lehiaketa azken txanpan

Azaroaren 7ra arte jasoko dituzte San Andres bertso-paper lehiaketako lanak...eta kitto!-n (16 urtetik gorakoek 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso, 10 gehienez, eta hortik beherakoek bertso bat edo bi koplak). Hiru kopia entregatu beharko dira, gaitzizekin, eta egilearen datuak gutunazal itxi batean. Sariak San Andres Bertso Jaialdian banatuko dira (azaroaren 27an Portalean). Nagusien mailan irabazleak 300 euro eta txapela jasoko ditu eta bigarrenak 250 euro eta plaka. Eta gaztetxoaren artean, berriz, lehenak liburua eta txapela eta bigarrenak liburua eta plaka. Aurten laukoteak jardungo du jaialdian, Jon Mikel Mujikaren esanetara: Andoni Egaña, Amaia Agirre, Miren Amuriza eta Unai Mendizabal.

Kokeinen lan berria

Azaroaren 25ean kaleratuko du Kokein taldeak lan berria: "Lurpekharia" (LP+CD), 9 abestiz osatutako bilduma. Lana biniloan kaleratuko dute, barnean CDarekin. Azalaren ilustrazioa eta diseinua Izukari-renak dira eta aurrerapen kantua, "Gaur" izenekoa interneten entzungai dago.





LOREA ARAKISTAIN

Mugikorren altxamendua

Mugikorren altxamenduaren biktimak nonahi ageri dira, gero eta gehiago. Altxamendu planifikatu eta antolatua dira; bistan da biktimak ez direla ausaz aukeratu, nola ba! Biktimek lur jota azaldu dute gertatutakoa. "Sentitzen dugu gure baimenik gabe eta guk jakin gabe, beste norbaiten zuhurtzia faltagatik, irudiek argia ikusi izana" aldarrikatu dute gogoz kontra neska bat grabatu duten eta futbolearen ere jokatzeko egin duten bi gaztek. "Nire baimenik gabe eta nik jakin gabe argazkiak argitaratu direla baieztatuta, barkamena eskatu eta neurri zuzentzaileak hartu ditut" kontatu du, suminduta, kalean lo dagoenaren argazkia krudelkeriaz argitaratu duen DSS European Capital of Cultureko alkateordeak. Aizue, aski da! Ez ginen atzo jaio. Ez gaitzazue tontotzat hartu. Zuen telefono mugikorrek ez dira antolatu, ez dira txipdun ejerzitoak, ez dute plan bat eta ez datoz jendartea deuseztera. Zuek grabatu eta zabaldu dituzue irudiak. ZUEK, Enrich, Luna eta Gasco. Zigor-kodearen arabera, urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio baimenik gabe, beste baten kalterako, izaera pertsonaleko edo familiako inoren datu erreserbatuak erabiltzen dituenari. Bi urtetik bost arteko espetxealdi-zigorra, baldin eta agerrazitako datu zein egitateak edo hartutako irudiak gainerakoei hedatu, ezagutarazi edo lagatzen bazaizkie. Hala bedi.

EibarLab's saio berria

Hirikiten-etik antolatu duten EibarLab's ekimenaren barruan, domekan "Mapping audiobisualera sarrera" tailerra emango dute Biharrian sormen espazioan (Ubitxa 16-18), 11:00etatik 16:00etara. Antolatzaileek diotenez, "tailerra interesekoa izan daiteke sormen lana egiten dutenentzat (musikari, artista, diseinatzaileentzat...) edo, beste berririk, teknologia berriak, ikus-entzunezkoak edo hiri-aktibismoa atsegin dituztenentzat". Saioan proiektio teknikei sarrera teorikoa eta praktikoa egingo zaie eta, horrekin batera, espazio publikoan egindako ikus-entzunezko mapping eta espektakuluak aurkeztuko






dituzte. Telenoika-ko kidea den Miguel Gozalbo musikari elektronikoa eta ikus-entzunezkoen ekoizleak emango du eta

parte hartzeko ez da beharrezkoa aurrez izena ematea (informazio gehiago: www.facebook.com/hirikiten).

Azarorako argazki erakusketak

Azaroan hiru argazki erakusketa hauek egongo dira ikusgai, Klub Deportiboko Argazki Taldearen eskutik: Iñaki Markaidaren lanak, Klub Deportiboan; Ricardo Cerratoren "Etiopia. Miradas impenetrables" izenburukoa, El Ambigun; eta Jose Vilaren lanak, berriz, Portalea jantzetxean.



Lore-dastaketa azaroan

Lore eta landareak, balkoian edo leihoetan apaingarri moduan jartzeko ez ezik, beste hainbat gauzatarako ere erabil daitezkeela azaltzera etorriko zaigu Mentxu Amunategi bermeotarra ...eta kitto!-ra, datorren azaroaren 15ean. Lore-dastaketa saioa izango da eta, besteak beste, asunak, txixa-loreak, larrosak eta erromeroa dastatzeko aukera izango da ardoarekin, frutekin edo entsaladan eta tortillan. Izena gaurtik azaroaren 11ra arte eman ahal izango da, telefonoz (943200918) edo e-mailez (elkarterea@etakitto.eus), eta 3 euro balio du.





Zarzuela ERMUKO Antzokian

Gaur, barixakua, 22:15etik aurrera 90 minutuko iraupena duen "Marina" zarzuelarekin gozatzeko aukera izango da Ermuko Antzokian, Mikhail Studionov musika-zuzendaria eta Rodolfo Albero zuzendari artistikoaren gidaritzapean. Lloret de Mar-en kokatutako Marina zarzuela eder bat zen, Emilio Arrietaren musika eta Francisco Camprodónen liburuxka zituena. Gero opera bihurtu zen Miguel Ramos Carriónen liburuxkarekin.



XXII. Txistu Kontzertua DURANGON


Bihar XXII. Txistu Kontzertua eskainiko dute Durangoko Landako Gunean, 20:00etan hasita. Silboberri Txistu Elkarteak antolatutako emanaldian Euskal Herri osoko 90 bat txistularik egingo dute bat, gonbidatutako abesbatza, dantza eta beste talde batzuekin estilo guztietako piezekin osatutako egitarau eskaintzeko. Sarrera doan izango da.



Herrixa Dantzan ELGETAN

Domekan hartuko du Elgetako Espaloia kafe antzokiak Herrixa Dantzan ikasturteko lehen dantzaldi irekia, 19:00etatik 20:30era. Patxi Montero izango da dantza gidaria eta sarrera doan eta parte-hartzea libre izango dira. Musika eta dantza tradizional ludikoekin osatutako saioan parte hartzea animatzen diren herritarrek dantzan elkarrekin ondo pasatzeko aukera izango dute.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Iñaxia Urkiola Etxebarria. 91 urte. 2016-X-20.
- Pedro Joga Ruiz. 53 urte. 2016-X-20.
- Fermina Ezquer Anaut. 90 urte. 2016-X-20.
- Antxon Yraolagoitia Orbea. 91 urte. 2016-X-21.
- Ricardo Sologaitua Zendoia. 52 urte. 2016-X-21.
- Jose Marino Fariñas Silva. 92 urte. 2016-X-24.
- Enrique Hernandez Romero. 83 urte. 2016-X-25.
- Ana Rivas Hernandez. 94 urte. 2016-X-25.

jaiotakoak

- Eider Gaston Gabancho. 2016-X-18.
- Miren Moyua Barrenetxea. 2016-X-19.
- Unai Artetxe Castaño. 2016-X-20.
- Paula Parada Perez. 2016-X-20.
- Danel Agote Portu. 2016-X-22.

farmaziak

- Barixakua 28
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisolola, 18)
- Zapatua 29
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- Domeka 30
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- Astelehena 31
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 1
EGUNEZ **Azku** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 2
EGUNEZ **Azku** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 3
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 4
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

SUDOKUA

5	9	2	8	1	4	7	6	3
4	1	3	6	5	7	8	9	2
8	7	6	9	2	3	5	4	1
3	4	5	1	7	8	9	2	6
7	8	9	4	6	2	1	3	5
6	2	1	3	9	5	4	8	7
2	3	8	5	4	1	6	7	9
1	6	7	2	8	9	3	5	4
9	5	4	7	3	6	2	1	8

8				4				9
		7	5		9			8
			2	8			6	3
		2			8			
			7	2	5			
			9			4		
2	5			9	7			
1			8		3	9		
7			4					1

Barixakua 28

GAZTELEKUA

16:30. Play/Wii eta eskulana. Indianokuan.

TAILERRA

17:00. Nenoos Baby Ready, doan. Nenoos zentruan (J. Gisasola, 16).

TXERTAKETA

17:00. Gripeareen kontra. Untzagako jubilatutuean.

KONTZERTUA

17:00. Eibarko Kantuzaleak abesbatza. San Andres zaharren egoitzan. Ondoren, kantu-kalejira egingo dute.

HALLOWEEN JAIA

17:30. Luntxa, koko-jantzi lehiaketa, jokoak eta globoflexia. 3 euro. Ipur sagardotegian.

BISITA GIDATUA

18:30. "Makina eskua da", Ibon Aranberriren erakusketa ikusteko. Armagintzaren Museoa.

INAUGURAZIOA

19:00. Indalezio Ojanguren XXIX. Argazki Lehiaketako lanen erakusketa zabaltzea eta irabazleei sariak banatzea. Portalean.

BILERA

19:00. Sanandresak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Kultur.

MUSIKA

20:30. "Khami" (Bazzque World Sounds). 8 euro. Coliseoan.

Zapatua 29

1944-AN JAIOTAKOAK

13:00. Arkupen batuko dira; piskolabisa eta zapiak banatzea.

14:00. Talde argazkia Untzagan.

15:00. Bazkaria Unzaga Plaza hotolean.

ANTZERKIA

17:00. "Gaueko entziklopedia koxkorra" (2princesesbarbudes). 5 euro. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17:00. Eskulana. Indianokuan.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "Alicia a través del espejo" (Disney), doan. El Corte Ingles-ean (ekitaldi aretoan).



POESIA

19:00. Poesia Zapatua, Mercedes Lopez Fdez-ekin. Itzamna akademian (B. Sarasketa, 2).

Domeka 30

PINTURA LEHIAKETA

09:00. XXXIX. Aire Zabaleko Lehiaketarako izen-ematea, 11:00ak arte. Portalean (museoan).

EIBARLAB'S

11:00/16:00. Mapping audiobisualera sarrera tailerra, Miguel Goizaborekin (Telenoika). Biharran sormen espazioan (Ubitxa 16-18).

KONTZERTUA

12:30. Cielito musika bandaren eta A Santo de Que taldearen kontzertua. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17:00. Beldurrezko filma. Indianokuan.

Astlehena 31

FISIO-HIDROTERAPIA

10:00/11:00 eta 11:00/12:00. Aqunanda metodoa, Boris Guinbourg sendagilearen eskutik. Orbea kiroldegian.

HALLOWEEN JAIA

17:30. Koko-jantzi lehiaketa (izen-ematea 3. pisuan, liburu sailean), jokoak eta ikuskizuna Lekim Animaciones-en eskutik. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

FISIO-HIDROTERAPIA

16:00/17:00 eta 17:00/18:00. Aqunanda metodoa, Boris Guinbourg sendagilearen eskutik. Orbea kiroldegian.

Eguaztena 2

IKASTEN

09:11. Irteera: Bilbo-Pagasarri. Trenaren irteera ordua, Estaziñotik (09:13ean Ardantzatik).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

MUSIKALDIA

20:30. Taipei Youth Choir (Taipei, Taiwan) abesbatza. XXIV. Musikaldia. Coliseoan.

Eguena 3

IKASTEN

10:00. "Historia del Do de pecho en la opera" hitzaldia, Jose Fran Gutierrezen eskutik. Armeria Eskolan.

TXERTAKETA

17:00. Gripeareen kontra. Urkiko jubilatutuean.

DANTZALDIA

18:00. Ikasten-ekoa. Untzaga jubilatutuean.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

MUSIKALDIA

20:30. Discantus Vocal Ensemble (Budapest, Hungaria) abesbatzaren emanaldia. XXIV. Musikaldia. Coliseoan.

Erakusketak

Urriaren 29ra arte:

- IBON ARANBERRIEN "Makina eskua da". (Armagintzaren Museoa)
- J. ANTONIO FERNANDEZ PEREZEN "Flores de Las Merindades", argazkiak. (El Corte Ingles)

Urriaren 31ra arte:

- GOTZON IRAZOLAREN perretxikoen argazkiak. (Klub Deportiboa)
- VIRGINIA ARAKISTAINEN "Londres". (El Ambigu)
- CANDIDO BARCOREN "Gomas bicromatadas". (Portalea jatetxea)

Azaroaren 6ra arte:

- ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN lanak. (Topalekua)

Azaroaren 13ra arte:

- DIEGO AGUDO PINILLAREN "Pelota sobre papel". (Portalea)

Azaroaren 20ra arte:

- I. OJANGUREN 29. ARGAZKI LEHIAKETAKO lanak. (Portalea)


Azaroaren 30era arte:

- IÑAKI MARKAIDEREN argazkiak. (Klub Deportiboa)
- RICARDO CERRATOREN argazkiak. (El Ambigu)
- JOSE VILAREN argazkiak. (Portalea jatetxea)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, IGOR, atzo hiru urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren guztiaren eta, batez be, Alain eta Kaien partez.



Zorionak, OINATZ, haraiñegun 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Eider eta Lukenen partez.



Zorionak, GAIZKA, bixar 11 urte betekoz dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, zure arreba Garaziren partez. Segi holan!



Zorionak, GERMAN, maittia, martitzenian 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu pillua etxekuen partez. Maite zaittugu!




Zorionak, EDURNE, gaur lau urte betekoz dozuz-eta. Patxo haundi bat Asier, Xabat, aitxitxa, amama eta famelixakuen partez.



Zorionak, ASIER Mallia, gaur 9 urte betetzen dozuz-eta. Haundixa egin zara oso! Musu bat Eibarko famelixaren partez.



Zorionak, ENEKO, azaruaren 2xan urtetxua egingo dozuz-eta. Patxo mordua famelixaren guztiaren partez.



Zorionak, ENARA, haraiñegun 11 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo potolo bat, neska haundi, etxekuen partez.



Zorionak, IRATI Zarrua, azaruaren 4an 10 urte betekoz dozuz-eta. Musu pillu bat famelixaren partez.



Zorionak, ARAIA, aurreko domekan sei urte bete zenduaz-en-eta. Musu erraldoi bat famelixaren partez.




Zorionak, EDER, gaur hiru urte egitten dozuzelako. Amama, aitxitxa, osaba eta izekuen partez.



Zorionak, MAIA, gaur 10 urte egitten dozuz-eta. Patxo potolo bat danon partetik.



Zorionak, LEIRE (astelehenian bost urte egin zenduaz-en) eta JULEN (bixar urtetxua betekoz dozuz-eta). Segi holan, bikote, zuen famelixaren partez.



Zorionak, MAIALEN, atzo lau urte bete zenduaz-en-eta. Oin arte bezain sorgintxo izaten jarraitzeko diñotsu BENAT-ek.



Zorionak, INTZA eta MALEN, urriaren 31n 10 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren guztiaren partez. Segi hain jator!



Ongi etorri, MARKEL, urriaren 13tik gurekin zagoz-eta! Zorionak gurasueri!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

29an: 17:00, 19:45, 22:30(Antzokian)

30ean: 17:00, 20:00

31n: 20:30 / 1ean: 20:00

"Un monstruo viene a verme"

Zuzendaria: J.A. Gª Bayona



(2 ARETOAN)

29an: 17:00, 19:45, 22:30

30ean: 17:00, 20:00

31n: 20:30 / 1ean: 20:00

"La chica del tren"

Zuzendaria: Tate Taylor



(ANTZOKIAN)

29an: 17:00, 19:45, 22:30(1 Aretoan)

30ean: 17:00, 20:00

31n: 20:30 / 1ean: 20:00

"Dr. Strange"

Zuzendaria: Scott Derrickson



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Iggogailuarekin. Tel. 650-156832 eta 646-079423.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 652-532589.
- Bi gelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 603-683176.
- Logela alokagai Eibarren, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Pertsona arduratsua. Tel. 695-716229. Amaia.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Urkizuko dorreetan. 85 m². Tel. 605-206151.
- Garaje marraduna salgai Urkizuko dorreetan. Armairua ipintzeko tokiarekin. Tel. 605-206151.
- Taberna traspasatzen da Ipuruan, foball-zelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Bittor Sarasketan. 15 m². Iggogailua eta komunak. Bariantera irteera zuzena. 100 euro hilean, negoziagarria. Tel. 605-742841.
- Garajea alokagai Matsarian. 16 m². Sarrera kalearen mailan. Komunak eta autoa garbitzeko gunearekin. Bariantetik zuzeneko sarrera eta irteera. 100 euro hilean, negoziagarria. Tel. 605-742841.
- Garaje itxia alokagai Txomon. Trastelekuarekin. Tel. 657-715162.
- Eibar erdian ezinhobeto kokatutako kirol-zentroan (Ugan Klub - F. Calbeton, 11) fisioterapia lanetan jarduteko gela alokagai. Tel. 943-820452. Edo utzi mezua: ugan-klub@gmail.com
- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
- Lokala alokagai Ubitxa inguruan. Kalera-ko irteera zuzena. Bulego, lantegi edo tailer txikiariko aproposa. 70-150 m². Tel. 617-688311.
- 18 urteik gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 602-393678.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 637-102725 eta 943-744033.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Interna. Tel. 619-384738.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 662-252150.

- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 615-394820.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan gaixoak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizean goiz soziedadek edo taberna garbitzeko eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 666-844365.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 612-492519.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-235524.
- Gizona eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- 32 urteko emakume arduratsua eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 600-840833.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-827655.
- Neska eskaintzen da arratsaldez eta asteburuetan lan egiteko. Tel. 626-444649.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 675-207301.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 647-276133.
- Neska eskaintzen da arratsaldeetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 655-094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-823029.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-074529.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-781587.
- Emakumea eskaintzen da 17:00etatik 21:00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-528936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-988471.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 673-028698.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-722291.
- Neska eskaintzen da 15:00etatik 21:00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 686-064608.
- Neska eskaintzen da 15:00etatik aurrera etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-802772.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Externa. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da zapatu eta domeketan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-381844.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 660-290237.

4.2. Langile bila

- Sukaldaria behar da Eibarko jatetxe batean. Astean bi egun eta erdi jai. Tel. 604-203896.
- Mekanizatu bidezko produkzioan hezitako jendea behar dugu. Esperientzia baloratu da. Bidali kurrikuluma: rrrh@epcge.com
- Artezte makinetan esperientzia duen ofiziala behar da, makina prestatzeko ohitura-rekin. Pieza unitarioak. Lanpostu egonkorra. Bidali kurrikuluma 177 posta kutxatilara (20600 Eibar) edo rectificadorexteriores@hotmail.com
- Sukaldari laguntzailea behar da asteburuetarako jatetxe batean. Bidali kurrikuluma 279 posta kutxatilara (20600 Eibar).

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- DBH eta Batxilergoko Zientzien arloko irakaslea behar da Bergarako akademia batean lan egiteko. Bidali kurrikuluma: 3d3akademia@gmail.com
- Gitarra akustikako klaseak hartuko nituzke astean birritan. Solfeorik gabe. Tel. 699-693821.

5.2. Eskaintzak

- LHko ikasleei zuzendutako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 605-746908.
- Irakasle-masterra, EGA eta Ingeles ikasketak dituen neskak LH eta DBH klase partikularrak ematen ditu. Baita ikaslearen etxean ere. Tel. 657-721050.
- DBH, Batxilergoa eta Heziketa 2. zikloko Matematika, Fisika, Kimika, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen dira. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624321.
- Errepide-bizikleta salgai: Laiz kuadroa, Campagnolo osagarriak, neumatiko berriak (1,60-1,65 altuerarako). 250 euro. Tel. 687-326230.
- Iraultze-taula salgai. Teeter hang ups markako F8000 modeloa. Oso ona. Argibide eskuliburua eta ariketen bi DVD-rekin. 280 euro (380 erosi berritan). Tel. 687-326230.
- Piano elektrikoa salgai. Egoera onean. Tel. 658-756514.

6.4. Bestelakoak

- Dantza egiteko mutilaren zapatak behar ditut. 44 zenbakikoak. Tel. 676-556739.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Kultu: 22 urte eibartarron zerbitzura

ZULOAGATARREN, 3 TEL. 943 20 84 39



Eskerrik asko
GUZTIO!!!

Eibarren
berriro

ORAIN "Tipi-Tapa, Korrika"
LAN BERRIAREKIN

AZKEN SARRERAK
SALGAI (8 euro)

EL TIO PALANCAS (JUAN GIASOLA)
DENETIK (URKIZU) eta
GOZOKI (BIDEBARRIETA
eta SOSTOATARKEN)


azaroak 12
ZAPATUA
16.30 eta
19.00

azaroak 13
DOMEKA
16.00 eta
18.30

PiRRiTx,
PoRRoTx
eta MaRiMoTots



MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA

*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
OSPATZEKO toki bikaina*



*250 LAGUNENDA
KOKO JANGELA*



Ozaeta Jauregia -BERGARA-
Tel. 943 76 10 55 Fax: 943 76 20 29



www.restaurantelasa.es